



ARGIA

EAJ - PSE-EE

Formula zaharra krisi sozialaren atarian

EZKERRA

**EH Bildu inoizko ondoen,
E. Podemos hondoratu da**

VOX

Lortu du bozgorailua

ABSTENTZIOA

**Herritarren ia erdiak
ez du botoa eman**

6-9. orriak



**Pandemiarekin
aberastu nahi du Bill
Gates kapitalistak**

10 | NET HURBIL



**Gehiegi xahutu
ditugu planetaren
baliabideak**

22 | EKONOMIA



**Baskoien herri
gotortua Pirinioen
magalean**

36 | IRULEGI

DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN...

LARRUN #254
HILABETEKARI MONOGRAFIKOA



AUTODEFENTSA
DIGITALA

ARGIA.EUS/LARRUN

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN
- 09 | HUMANITATEAREN
- UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU

AZALEKO ARGAZKIA:
MARISOL RAMIREZ / FOKU

Iritziak

- 17 | ASIER BLAS
- 18 | SONIA GONZÁLEZ
- 19 | JON ALONSO
- 19 | EDU ZELAIETA
- 20 | GOTZON BARANDIARAN

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 40 | DENBORAREN MAKINA
- 41 | ARGIA KOMUNITATEA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 50 | ZUZENENKO EMANALDIA
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGÍ-KONTRA:
- IÑIGO OTXOA
- 54 | BERANDUEGI



JOSU NARBARTE HERNÁNDEZ

36 | IRULEGI GAZTELUA

Batez ere Erdi Aroko gaztelua ezagutzen den arren, Nafarroako Protohistorian eta Antzinaroan sakontzeko ere funtsezko aztarnategia izango da, datozen urteetan, Irulegi. Josu Narbarte azaldu digu uztailaren 9an aurkeztu zituzten aurkikuntzen berri eta testuinguru historikoari buruzko azalpenekin kokatuta.

Elkarrizketak eta erreportajeak

10 | NET HURBIL

Filantropoa ez, COVID-19ari esker aberastu nahi duen kapitalista dugu Bill Gates

Jenofa Berhokoirigoin

12 | MARIA ZAPATA

“Diskurtso terapeutikoaren aurrean beharrezkoa da ondorezko politizatzea”

Miren Artetxe

22 | EKONOMIA

Energia urritzearekin datorren ekonomiaren uzurtzea

Xabier Letona

29 | PENSIONISTAK MARTXAN | ANA MEZO

“Mila bider eskatu arren ez dugu lortu Urkullurekin batzarra egitea”

June Fernández / Pikara magazine

32 | NAZIOARTEA

El Salvadorko Segundo Montes komunitatea: Oasi kolektiboa

Maria Ortega

38 | NAZIOARTEA

Portugesa gero eta erakargarriagoa da galiziarrentzat

Malen Aldalur

44 | KULTURA

Argi kartsuaren distira

Julen Azpitarte

47 | KULTURA

“Lemoiz gelditu” murala

Gorka Bereziartua

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaina Taldeko partaidea
Lehendakaria
Bego Zuza
Erredakzioa
Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel Eizagirre, Mikel García, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga
Diseinua
Maitane Gartzandia
Argazkilaria
Dani Blanco
Produktzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.
Administrazioa:
Jone Arzallus, Mari Karmen Loarte
Salmenta
Idoia Arregi, Karlos Olosolo, Olatz Korta
Idazkaritza
Aloña Soraluze, Bego Zuza
Web garapena
Asier Iturralde
Informatika
Iametzta Interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012
ISSN
0213-909X
Batzorde parekidea
72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa
komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonoa

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa
Xalbardin baita. 64122 Urruña
Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina
31001 Iruñea

Ametzagaina taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta
interaktiboa

ADUR software productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egile eta aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Liberté
égalité
impunité





Frantziako Estatuko mugimendu feministak kalera atera dira uztailaren 10ean. Haserre, suminduta Macronek osatu duen gobernu berriko bi kideekin. Justizia ministro Éric Dupond-Moretti abokatua izango da, duela hilabete "emakume batzuek, kaletik doazenean, faltan somatzen dute gizonek txistu egitea" zioen berbera. Eta Frantziako gobernuaren postu garrantzitsuenetako bat –Barne ministroa– Gérald Darmaninek okupatuko du, 2018an emakume bat bortxatu izana leporatuta prozesatuta dagoen gizona. Irudian: Parisko udaletxearen aurrean protesta.

*“Bortxaketaren
ministerioa”*

Normaltasun berriak zahar usaina du

AXIER LOPEZ

Jokaldia ondo atera zaie. EAEko hauteskundeak Kataluniakoekin, eta batez ere, erabakitze eskubidearekin, talka ez egiteko aurreratu ziztuzten aurrena. Koronabirusak uztailera arte atzeratu du bozkaketa, baina helburua lortu dute boterean jarraitu nahi zuten alderdiek: orain arte izan ez duten gehiengo absolutua erraz eskuratu dute. Beste lau urtez EAJ eta bere makulu "sozialista". PSOEek behar du EAJ Espainian eta EAEn EAJk behar du PSOE. Kito.

Aurreko legegintzaldiko ustelkeria kasuen zerrenda oparoa (De Miguel, Victor Bravo, Alonsotegi, Montai, Osakidetza azterketak, Marguello, Karrantzako Purines, Hiriko, Epsilon...), Zal dibarko hondamendiak azalarazitako irregularitateak eta oraindik lurperatuta dauden bi gorpuak, koronabirusaren pandemiaren kudeaketa eztabaidagarria, gehiengo sindikalariekin etengabeko talka zuzen eta gordina, Autonomia Estatutua eguneratzeareko enegarren aldiz atzeratutako prozesua, Katalunian independentzia eta Urkulluren papera... Deseroso eta lotsak agerian ikusi izan da EAJ legegintzaldi honetan, batere ohikoa ez den zerbait. Gainera, horietako kasu batzuk legegintzaldiaren azken hilabeteetan gertatu dira, alderdiek hobekien zaintzen duten hauteskunde atarian. Horrez gain, herritarren ia erdia etxean geratu da abstentzioa maila historikora eramanez: %47,14.

Hori dena. Baina, halere. Hala eta guztiz ere. Zero higadura. Areago, orain lau urte baino indartuago atera da EAJ-PSE izatezko bikotea. EAJk 3 eserleku irabazi ditu eta botoetan puntu eta erdi gora (%39,12), PSE-EEK eserleku bat eta 1,7 gora (%13,64).

Askoren burutik pasa da galdera: "Hau dena ikusi eta gero, zer gertatu behar du EAJ eta haren eredia higatzeko?". Baina ez al da hori baino kezka-garriagoa hauteskundeak egin aurretik



denok jakintzat ematea zeintzuk izango ziren irabazleak?

ALTERNATIBA?

EH Bilduk baditu pozteko arrazoiak. Absentzia izugarri puztu bada ere, boto kopurua handitu duen alderdi bakarra izan da EH Bildu (+23.000), Voxekin (+16.800) batera. Lau eserleku gehiago lortu ditu (22) eta sei puntu eta erdi hobetu ditu 2016ko emaitzak (%27,84). Ez da makala. Baina ez da nahikoa. Politika instituzionalean, boto bilketaz gain, gehiengoen osaketak agintzen du. Eta hauteskunde hauetan ezkerreko blokeak atzera egin du. 2016an EAJk eta PSEk botoen %49,60 lortu zuten eta EH Bilduk eta Podemosek %36,12. Azken hauteskundeetan EAJ-PSE tandemak %52,76 eta EH Bildu - Podemosek %35,87. Jakina, horretan zeresan handia du Miren Gorrotxategiren alderdia barrutik ez ezik hauteskundeetan ere puskatu izanak: 5 parlamentari eta 6 puntu eta erdi (%8,03) galdu dituzte. Hauteskundeetan tamaina horretako


galerarik lortzeko gaitasuna Carlos Iturza-Gomarak baino ez du izan. Gauzak horrela ezkerreko indarren batuketak jarraitzen du alternatiba osatzeko aukerarik gabe Legebiltzarrean, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Urrun dira 2012ko garaia, non EH Bilduk hegemonia lehiatu nahi izan zion EAJri edo Podemosen agerpenak balizko koalizioen mapa zabaldu zuen. Badaezpada ere, esan gabe doa, EH Bildu eta PSE elkarrekin dituen gobernu bat gaur-gaurkoz ameskeria hutsa dela, "sozialistak" ezkerreko alderditzat definitzea bezainbat.

"Euskadi Zutik". Hala jarraituko dugu lau urtez, aurreko lau urteotan izan den bezainbat bederen, baina krisi ekonomikoa ate joka dugula. European parekorik ez duen zentralitatearen, egonkortasunaren eta moderazioaren paradigmak beste lau urtez eroso gobernatzeko aukera izango du. Baina tira, abertzale nostalgiko kronikoei beti geratuko zaie EAEko legebiltzarren osaketa "inoizko abertzaleena dela" dioen matematika ariketa hutsa. ●

DATUTAN

EUSKO LEGEBILTZARRAREN
OSAKETA

	2020	2016
EAJ	31	28
EH BILDU	22	18
PSE-EE	10	9
ELKARREKIN-PODEMOS	6	11
PP-CIUDADANOS	5	9
VOX	1	0



Bizkaia



ALDERDIAK	2020	2016	
EAJ	200.029	238.581	12 (+1)
EH Bildu	112.443	99.610	7 (+2)
PSE-EE	63.843	66.506	3
Elkarrekin-Podemos	40.340	84.195	2 (-2)
PP-Ciudadanos	32.018	(-)	1 (-1)
Vox	8.785	(-)	
Equo Berdeak	5.493	(-)	
PP	(-)	55.128	
Ciudadanos	(-)	10.963	
Abstentzioa	47,48%	39,52%	

Araba



ALDERDIAK	2020	2016	
EAJ	40.002	42.327	9 (+1)
EH Bildu	30.886	26.899	6 (+1)
PSE-EE	19.414	19.489	4 (+1)
Elkarrekin-Podemos	14.287	24.339	3 (-2)
PP-Ciudadanos	10.054	(-)	2 (-2)
Vox	4.722	776	1 (+1)
Equo Berdeak	2.728	(-)	
PP	(-)	27.877	
Ciudadanos	(-)	4.784	
Abstentzioa	49,69%	40,26%	

Gipuzkoa



ALDERDIAK	2020	2016	
EAJ	109.398	117.260	10 (+1)
EH Bildu	105.359	98.663	9 (+1)
PSE-EE	38.612	40.425	3
Elkarrekin-Podemos	21.365	48.800	2 (-1)
PP-Ciudadanos	13.994	(-)	1 (-1)
Vox	4.010	(-)	
Equo Berdeak	3.395	(-)	
PP	(-)	24.766	
Ciudadanos	(-)	5.730	
Abstentzioa	45,43%	40,62%	

Guztira



ALDERDIAK	2020	2016	
EAJ	349.429	398.168	31 (+3)
EH Bildu	248.688	225.172	22 (+4)
PSE-EE	121.869	126.420	10 (+1)
Elkarrekin-Podemos*	71.759	157.334	6 (-5)
PP-Ciudadanos**	60.299	(-)	5 (-4)
Vox	17.517	776	1 (+1)
Equo Berdeak	11.616	(-)	
PP	(-)	107.771	
Ciudadanos	(-)	21.477	
Abstentzioa	47,14%	39,98%	

* Podemos eta Equo Berdeak batera aurkeztu ziren 2016an

** PP eta Ciudadanos bananduta aurkeztu ziren 2016an

%47,14

ABSTENTZIOA

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan inoiz izandako abstentziorik handiena izan da. 2016an %39,98koa izan zen. Izan daitezke bestelako faktoreak ere, baina seguruenik, horren eragilerik handiena izan da hauteskundeak pandemiaren erdian egitea.



ORDIZIA ETA ZALDIBAR

Albiste izan dira COVID-19 eta zabortearen hondamendia-gatik, eta bazen kuriositatea ikusteko herritarrek nola erantzungo zuten horietan. Ordizian EH Bildu nabarmen gailendu da –2016an EAJ– eta Zaldibarren EH Bildu gutxiagatik: 465/436 (2016an 463/433 EAJren alde). Ermuan PSEk irabazi du (EAE osoan irabazi duen herri bakarra) eta Eibarren EAJk, baina bietan behera egin dute, bereziki nabarmen EAJk, eta EH Bilduk nabarmen gora.



VOX-EK LORTU DU

Eusko Legebiltzarrean Arabatik sartzea lortu du eskuin muturreko alderdiak, eta horrek bozgorailu esanguratsua emango dio. 17.517 boto lortu ditu, iazko Espainiakoetan 28.659. Unidad Alavesak eta UPyDk ere Araban lortu izan zuten eserlekua.

EKONOMIAREN TALAIAN

Eskuineko eta ezkerreko politikak



JUAN MARI ARREGI

ñigo Urkullu jarduneko lehendakariak eta bere alderdiak hauteskunde kanpainan esan dutenez, “ezkerrekoak eta eskuinekoak jada ez dira existitzen”. Gaur egun EAEn nagusi den politikaren alternatibarik existituko ez balitz bezala, hau da, ez balego bezala eskuinekoak izanik egungo sistema kapitalistari eusten dion alderdiaren ordezkorik.

Arlo ekonomikoan ikusten dira argiago eskuineko eta ezkerreko politiken ondorioak. Adibide komun batzuk jartzearen, eskuineko zein ezkerreko talde politikoek eskainitakoaren artean, osasungintzari, zerga erreformari eta pentsioei erreparatuko diegu.

Osasungintza hobetzea zertan datza? Zerbitzuak pribatizatzea? Zaharren egoitzak boterean dagoen alderdiaren lagun diren enpresa pribatuen edo funts putreen esku uztea? Edo sare publikoan in-

tegratzea? Osasun zerbitzuak –oinarrizko arreta barne– nola hobetu daitezke, enplegu prekarioarekin edo finkoarekin? Urkulluk osasunaren arloan agindutako 4.000 lanpostuak nolakoak izango ote dira? Administrazio publikoan bezalakoak? Egiturazko milaka lanpostu daude sektore horretan, baina aldi baterakoak dira eta erretiroa hartu arte urteak irauten dituzte.

Bestalde, erreforma fiskala nola egin? Zergak jaitsiz? Edo gehien dutenei –hots, aberatsei, enpresei eta multinazionaliei–? Eta pentsioak nola bermatu? Publikoak direnak gutxieneko duinarekin indartuz, edo aseguru pribatuen alde eginez?

Hauteskundeon ondoren ezarriko diren politikekin ikusiko dugu hori guztia... Bai eskuinetik kapitalaren zerbitzura ezarriko diren politikekin, baita ezker alternatibotik horiei erantzun eta aldarazteko izango den gaitasunarekin. Izan ere, gezurra da eskuindarrak eta ezkertiarrik ez dagoela dioen tesi hori. Bai, jakina badaudela eskuineko eta ezkerreko politikak. Galde diezaietela zaharrei, langabeei, gazteei edo emakumeei. ●

GALIZIA



LA REGION

GALIZIAN FEIJOOK DIRAU JABE, ETA BNG DA OPOSIZIO BURU

Galizia PP eskuindarrari kenduko dionik ez da sortu, oraindik bederen. Alberto Núñez Feijóo presidenteak lortu du berririo gehiengo absolutuz irabaztea hauteskundeak, 42 aulki eskuratuz parlamentuan. Aldatuko dena ez da presidentea, oposizioko burua baizik: PSOE-ren Galiziako adarrari alternatibaren irudia izatearen nagusitasuna kendu dio BNG alderdi abertzale ezkertiarrek. Galiziako legebiltzarretik kanpo geratu dira bai Galicia en Comun eta bai Marea Galeguista ezkerretik eta bai Vox eta Ciudadanos eskuinetik.

BOTO AKTIBOA BEZAIN GARRANTZITSUA ZEN VOX-I KALEAN ERANTZUTEA. OSO GUTXIGATIK EZ DA ERABATEKOA IZAN HAIEN UMILIAZIOA

@InzaXabier

EMAITZA TXARRAK DIRA ERRETERIA EDOTA DURANGO EREDU DUGUNONTZAT. ANGUITAREN HURA MANTRATIK SUPERNIRA PASA BEHAR DUGU: PROGRAMA, PROGRAMA, PROGRAMA. IA BEHINGOZ EHBK ETA EPDMSEK OPOSIZIOA EGITEN DUTEN, EZ MORALA ETA ORATORIAZKOA, PROIEKTUZKOA BAIZIK

@hedoi_etxarte

ESKUBIDE BILAKATU BEHAR DUGU 16 URTETIK AUERRERA BOZKATU AHAL IZATEA. ESTRATATEGIKOA DA GAINERA. GERO ETA EDADETUAGOA GIZARTEA, ORDUAN ETA BOZKA KONTSEBADOAREAGOA

@JuleGoi

VOX ARABATIK SARTU DELAKO SUTAN DAUDE SARE SOZIALAK. BAINA EZKER ARABARRAREN IGOERAK ASKOZ GEHIAGO DIO. ULTRAESKUINAREN SARRERA KOIUNTURALA IZAN DAITEKE, EH BILDURENAK EGITURAZKOA IZATEKO ITXURA DU

@Zuriro

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Bozkaleku baten agortze saiakera



ARITZ GALARRAGA

Data: 2020ko uztailaren 12a (igandea). Ordua: 13:00. Tokia: H. herriko bozkaleku nagusiko kanpoaldean dagoen banku bat. Eguraldia: orduak iraun dituen euri jasa baten azken tantak. Jende mugimendu etengabea atarian. Talde handirik ez. Gehienak banaka, binaka, trioren bat. Maskarekin batzuk. Boto papera eskuan zuhurrenak. Bi BMW. Hiru Audi. Autokarabana bat, demokraziaren festarekiko erabat axolagabe. Liburuzaina bizikletan, kaskorik ez. Lazo horiarekin gizon bat, modaz pasata egon arren. Gazte itxurako zahar bat. Atariko udaltzainaren guardia aldaketa. Gidari bat aparkatzeko zailtasunekin. Haurrak patinetean. Arraza definiturik gabeko zakur bat –niretzat zakur guztiak diren bezala, westyak izan ezik–. Ainhua Perez, nigandik nahikoa urrun elkar agurtu ahal izateko. Hausnarketa atenporal bat: betaurrekorik ez banu, ezin izango nuke deskribatzen ari naizen hau guztia ikusi. Pausa.

Data: 2020ko uztailaren 12a (igandea oraindik). Ordua: 19:30. Tokia: H. herriko bozkaleku nagusiko kanpoaldean dagoen beste banku bat. Eguraldia: uztail beteko eguzkia, gogor jotzen du gauden ordurako. Jende mugimendu urria atarian. Gehienak tantaka. Maskarak, segun. Citroen, Peugeot, Renault bana. Goizeko autokarabana bera, demokraziaren festarekiko berdin axolagabe. Liburuzaina berriz bizikletan, kaskorik ez noski. Zahar itxurako gazte bat. Toallarekin emakume bat. Zakur pare bat –hauek ere ez dira westy–. Errealeko kamisetarik ez daraman haur bat. Pertsona bat –atezaina?– atariko udaltzainarekin hizketan. Ainhua Perez, agurtzera joan natzaionean konturatu naiz ez zela bera –maskaren albo-kalteak–. Hausnarketa atenporal bat: betaurrekoak eramateak ez zaitu gauzak gaizki ikustetik libratzen. Azken orduko boto emaileak, presati. Atariko udaltzaina atariko argibideak desmuntatzen. Pertsona bat –atezaina!– atea ixten. Gazte bat liburu batekin: *Mundu hobe baten bila*, Karl Popper. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



“KOLABORAZIO ZIKLO BERRI BAT BEHAR DUGU KRISITIK ATERATZEKO”

ANDONI ORTUZAR, EUSKO ALDERDI JELTZALEKO LEHENDAKARIA

Hauteskunde gauean, azken hilabete “zailak” gogora ekarri ditu Ortuzarrek eta hurrengo hiru urteak ere zailak izango direla aurreratu du. Krisialdiari aurre egiteko, auzolanean, hiru helburu izango dituztela gaineratu du: enplegua, gizarte kohesioa eta autogobernua. Adierazi du Iñigo Urkullu dela krisialditik ateratzeko behar den gidaria. Garaipena apaltasunez kudeatuko dutela esan du; “gure nagusiek apaltasunez jokatzeko erakutsi digute”. 2020/07/12



FILANTROPOA EZ, COVID-19ARI ESKER ABERASTU NAHI DUEN KAPITALISTA DUGU BILL GATES

Kapitalismoaren printzipioak karitatezko egintzetara bideratzean datza filantropikapitalismoa. Microsoften sortzailea den Bill Gates miliardunak koronabirusaren izurritearen testuinguruan duen asmoa, lekua eta eragina aztertzearekin, laster ageri da kapitalismotik askoz gehiago duela filantropiatik baino: milioiak banatuz miliarrak irabazi, mundua oraindik gehiago kontrolatzeko gisan. Apirilean AEBek Munduko Osasun Erakundearen finantzaketa utzirik, Bill Gatesek sortu fundazioa da egituraren finantzatzaille nagusia –seguruenik, erabakietan eragiteko boterea arabera izanki–.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Bill Gates mundu mailako bigarren aberatsena behin baino gehiagotan entzun da koronabirusaren izurriteaz hitz egiten eta oraindik entzunen dugu, segur. Apirilaren 12an *Le Monde* egunkarian “COVID-19aren kontrako borrokarako ikuspegi globalaren beharraren deia” (*Pour une approche globale de la lutte contre le Covid-19*) iritzi artikulua argitaratzeko beharra ere sentitu zuen Microsoften sortzaileak. Hainbeste non eta konplotisten esfera batek Bill Gates kokatu duen birusaren oinarrian eta garapenean. Osasun krisi honetan Vandana Shiva ekofeminista indiarrek eskainiriko elkarriketak irakurri behar dira miliardunaren kokapena ulertzeko, eta “%1, boterea berreskuratu aberatsen potentzia-osoaren aurrean” (*1%, reprendre le pouvoir face à la toute-puissance des riches*) bere azken liburuak ere merezi du zertan garen sesitzeko.

Filantropia kapitalismoaren ikuspegitik eta helburutik bideratzen dabilen filantropikapitalismoaz ari da *Basta!* komunikabideari eskaini elkarriketan. Microsoften fundatzaileak sortu Fondation Bill & Melinda Gates fundazioa adibiderik onena dela dio. Ongi ezagutzen du Bill Gates, gizon horren diru gosearen bortizkeria pairatu beharra du bere egunerokoan. Hain zuzen, Monsanto/Bayer-ekin eskuz-esku transgenikoen bidez lehenik, baita osasun arloan ere, txertoen inposaketarekin edota diruaren numerizazioarekin orain, miliardunaren esku hartzea

ikaragarria da Indian. “Aro modernoetako Christophe Colomb” izena jartzen dio. “Territorio berriak konkistatzen dabil. Berea ez da historian zehar betidanik kolektibitateari egin izan zaion emaitza soila. Errealitatean, inbertsio horiekin merkatuak eskuratzen dabil, menderatzaile kokatuz. Filantropiarekin, Bill Gatesek milioi batzuk ematen ditu, ondotik miliarrak balio dituzten instituzio edo sektoreen kontrola bereganatzeko”.

MOE KONTROLATZEKO BIDEA

Koronabirusaren izurriteari dagokionez, aholkuak, abisuak eta aterabideak plazaratzen dabilen MOE Munduko Osasun Erakundearekin Bill Gatesek duen lotura aztertuz ulertzen da filantropikapitalismoa. 2018-2019. urteen aurrekontuari begiratzuz ohartzen gara Fondation Bill & Melinda Gates dela bigarren diruztatzaile nagusia, AEBen atzetik: 531 milioi dolarrez finantzatzeko du Nazio Batuen Erakundearen egitura. AEBek apirilean MOE diruztatzea utzirik, fundazio hau da inbertitzaile nagusia! Laugarren postuan da GAVI-Alliance elkarte, txertoen bidezko immunizazioa bultzatzen dabilena –eta elkarte horren parte dugu berriz ere Fondation Bill & Melinda Gates–. MOEren diruztatzeak dakarren boterea kezkarria bezain arriskutsua da. “Ehunka milioi herritarren osasunean eraginen duten politiketan duten esku hartzearen adibide adierazgarria dugu”, irakur daiteke *Mediapart*-en “MOE eta

Bill Gates Fundazioa, COVIDak erakusten diguna” (*OMS et Fondation Bill Gates, ce que le COVID révèle*) artikuluan.

Elementu hori esku artean, miliardunak *Le Monde*-n idatziriko iritzi artikuluen lerroen artekoa deszifratu daiteke errazkiago. Ikuspegi kolektibo bat bideratu eta izurriteari aurre egiteko herri pobreekilako elkartasunaren mezu ederra irakurri daiteke, hori bai. Baina interesgarriena –Bill Gatesentzat baita sistemaren maltzurkeria ulertu nahian dabilenarentzat– ondotik dator: “Herri garatueta eta garapen bidean diren herrietako agintariek MOE eta bere kideekin lan egin behar lukete, hauen ofizializatzeko. Herri hauek guztiek publikoki onartu behar lituzkete arauak, ondotik errespetatzera behartuak izateko gisan. Akordio horiek garrantzia handia ukanen lukete COVID-19aren kontrako txertoa atzeman ondoan, guztiak immunizatzu dugulako soilik lortuko pandemiaren bukaera. Ondoko kontseilua ematera bideratzen nau horrek: txertoa esku artera ekarriko diguten ikerketa eta garapenera dirua bideratzea ezinbestekoa zaigu”. Mundua are gehiago kontrolatzeko estrategia argiki ageri da adierazpen horretan: MOE eta bere kideen –ulertu Bill Gatesen– menpe jarri estatuak, bai ala bai hauen erabakiak gauzatzera behartzeko gisan –ulertu, Bill Gatesi miliarrak ekarriko dizkion txertoaren orokortzea–. Miliardunaren fundazioa ikerturik, “Eskuzabaltasun faltsuaren artea, Fondation Bill & Melin-



COVID-AREN KONTRAKO TXERTOIA AMETS

KORONABIRUSARI BURUZKO ADIERAZPEN ANITZ EGIN IZAN DU BILL GATESEK. HELBURU ARGIA DU: GAITZAREN KONTRAKO TXERTOIA.

da Gates” (*L’art de la fausse générosité*, Fondation Bill & Melinda Gates) liburua argiratu zuen iaz Lionel Astruc kazetariak. “Hainbat estatu baino botere eta aurrekontu handiagoak ditu fundazio horrek eta, pseudo-eskuzabaltasun hori botere bihurtzeko abilezia handia du Bill Gatesek; azken finean, piramidearen gailurrean kokatzen duen sistema elikatze gisan”.

SOS GEHIAGO ZERGETATIK IHES

Miliardunak bideratu jukutrien artean, bi goraipatzen ditu kazetariak. Batetik, zerga ihesarena: “Besteen diruarekin, hau da, zerga ihesaren bidez Estatuari kenduriko baliabideen bidez eskuzabal izatea ez da eskuzabal izatea”. Fundazioak bideratu milioiak baino gehiago ditu Microsoftek zerga paradisuetan gorderik.

Elisabeth Warren AEBetako presidentetzarako hautagai demokratik aberastasun handiak zergapetzeko desirak kezka piztu zion ekainean Gatesi: “20 miliar dolar pagatzeko prest naiz. Baina erraten badidazu 100 miliar dolar pagatu behariko ditudala, kalkulatu beharko dut zenbat gelditzen zaizkidan”. *Forbes* ekonomia alorreko komunikabidearen arabera, 96,5 miliar dolarreko aberastasuna du –54 miliar zituen 2011n–.

Bestetik, fundazioak eskuz-esku duen trust edo inbertsio fondoan ikusten du kapitalismoaren itzala –filantropiarena erabat estaltzen duena–: “Trust horrek akzioak zertan inbertitzen dituen problematikoa da: fondo horrek elikatzen ditu justuki fundazioak borrokatzen dituen gaitzak: armagintza (BAE Systems), *malbouffe* jan txarra (McDonald’s, Co-

ca-Cola,...), meatze-erazketak, transgenikoak (Monsanto/Bayer), petrolioia (Total, BP,...),... Interes orokorraz oso urrun gaude”.

Koronabirusa agertu aitzin idatzitakoa da liburua. Alta, Fondation Bill & Melinda Gates-ek hastapenetik txertoaren industriarekin duen harremanaz ari da ere kazetaria. Funtsean, 2005eko Mundu mailako Osasun Batzarrean Gatesek egindako diskurtsoak balio du erreportajea boro-biltzeko: “Batzuek diote pobreziaren desagerpenak ekarriko lukeela osasunaren hobetzea. Noski, helburu garrantzitsua da pobreziaren desagerpena, baina ez da beharrezkoa baztanga desagerrarazteko eta paludismoa ahultzeko. Egin beharrezkoa da txertoak ekoiztu”. Txertoa beraz, sistema bidegabea bere horretan mantenduz, 2005ean bezala 2020an ere. ●

ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani 23 - 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

f t



Maria Zapata

PERTSONALA POLITIKO, JATORRIZKO ZENTZUAN



DISKURTSO TERAPEUTIKOAREN AURREAN BEHARREZKOA DA ONDOEZAK POLITIZATZEA



Post-itxialdi garaia da, baina oraindik bizitakoak gorputzean dauzkagula elkartu gara, normaltasun berri honetan, pantailatik pantailara. Aipatu dugu nola asaldatu gaituzten itxialdian “krisia aukera gisa ikusteko”, “barrura begiratzeko” eta “nork bere burua zaintzeko” gomendioek. Aipatu diot bizilagun batekin baino gehiagorekin lehen aldiz hitz egin dudala konfinamenduan, baina, ikusi ditudala “nola kudeatu estresa etxeko hormek jan ez zaitzaten” erako bideoak ere. Balio badit bejondeidala, berak.



MIREN ARTETXE SARASOLA



DANI BLANCO

Elkarrizketak aurrera egin ahala, ordea, laster adierazi dit, bere pandemia-ondorenerako kezka: ez daukagu elkar-zaintzarako behar bezalako sarrerik, diskurtso terapeutikoak gure arazoak indibidualizatzera garamatza, eta sekulakoa datorkigu gainera. Azken krisi ekonomikoan depresio eta antsietate mailak izugarri igo ziren. Baita bere buruaz beste egin zuen jende kopurua ere. Eta ez gaude prest. Gure ondoezak politizatzen hasi ezean, jai dugu.

Madrilen jaio zinen eta Badajozen bizi izan zara.

Madrilen jaio nintzen, baina 4 urterekin

Badajozera joan ginen, familiarekin. Eta han hazi nintzen. Baina, nire bigarren bizilekua Madril izan da beti, han bizi baita ia nire familia osoa. Eta txikitan jendea herrira joaten zenean, ni Vallecasera joaten nintzen aitona-amonekin uda pasatzera.

Ikasketak zirela eta, Salamancara joan zinen lehenik, eta Bartzelonara gero.

Badajozetik Salamancara joan nintzen lehendabizi psikologia ikastera, garai hartan Extremaduran ez zegoelako psikologia ikasterik. Eta handik Bartzelonara joan nintzen lehen doktoretza bati

ekitera. Kontua da oso ikuspegi genetistatik lantzen zela han psikologia, eta ez nuela urtebete ere iraun horretan.

Baina, Bartzelonan antropologia eza-gutu nuen, lagunei esker, eta kartzelen aurkako antropologiako talde batean hasi nintzen militatzen. Hain zuzen ere, espetxe terapeutikoen gaia aztertzen ari ziren, presondegiak izan baitira gure gizartean terapeutizazioaren esperimintazio-leku. Orduan hasi nintzen konturatzen psikologia sistema neoliberalaren tresna oso eraginkorra izan zitekeela. Buruak eztanda egin zidan, apur bat. Ez nintzen eroso sentitzen psikologiarekin, eta alternatibak bilatzen hasi nin-

Maria Zapata Hidalgo

BADAJOS, 1983



Psikologian (USAL) eta Gizarte eta Kultur Antropologian (UNED) lizentziatua da, eta baita Ikasketa Feministetan doktore ere, iaztik (EHU).

Bere doktorego-tesian depresioa bizi izan duten pertsonen osatze prozesuak aztertu ditu, ikuspuntu feministatik, gorputza erdigunean jarritz eta prozesu kolektiboak azpimarratuz.

Antzerkiaren bidezko prozesu komunitarioen dinamizatzaile eta aktore ere bada, eta hainbat proiektu artistikotan parte hartu du osasun mentalaren ahalduntze kolektibo eta eromenaren estigmaren aurkako kritika soziala sustatzeko.

tzen. Antipsikiatriarekin hasi nintzen lehendabizi, psikologia modu askoz kritikoagoan eta antropologikoagoan ulertuz. Eta ikuspegi horrekin maitemindu nintzen. Hala, urte batzuen buruan karrera hastea erabaki nuen. Hasi nintzenerako 28 edo 29 urte nituen.

Psikologiatik antropologiara pasa zinen, eta horrek Bartzelonatik Euskal Herrira eramane zintuen.

Halaxe da. Antropologiako ikasketetan zehar, gorputzaren antropologiarekin erabat zoratu nintzen. Mari Luz Estebanekin topo egin nuen eta esan nuen: "Nik zerbait egin nahi dut andre honekin". Eta idatzi egin nion. Eta Mari Luzek esan zidan: "Oso ondo, baina, feminismoko masterra egin behar duzu". Eta ez bat eta ez bi, Donostiara etorri nintzen. Eta Ikasketa Feministen masterra egin nuen, feminista bihurtu nintzen eta doktoretza bat hasi nuen ikertzeko gogoan nuelako. Beka eskatu eta eman egin zidaten. Eta horrela, ia sei urte daramatzat hemen, Euskal Herrian.

Zer ikertuko eta depresioa bizi izan duten pertsonen osatze prozesuak aztertzen hasi zinen. Zergatik depresioa?

Masterrean hasi zen kontua. Master-amaiarako lanari ekiteko gai bila ibili nintzenean, egia esan, hasieran mila hariri tiraka hasi nintzen eta bat bera ere ez zegoen osasun mentalarekin lotuta. Baina, nahi ala ez urte asko neramatzan arlo horretan lanean, eta horri etekinik ez ateratzea txorakeria zela konturatu nintzen, esperientzia pilatua neukalako, eta zentzu handiagoa zuelako erabiltzeak ezabatzeak baino.

Orduan hasi nintzen buru osasunari loturiko gaiak genero auzi gisa aztertzen, feminista hasiberri gisa. Eta Marta Luxanek masterreko klase batean Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-inkesta batzuei begira jarri gintuean, bat-batean depresioa agertu zen. Generoak erabat zeharkatzen zituen datuak. Osasun mentaleko diagnostiko feminizatuenetako bat da: emakumeei gizonen baino bi aldiz gehiago diagnostikatzen zaie, eta, adin-tartearen arabera baita hiru aldiz gehiago ere. Zenbat eta nagusiago izan, orduan eta handiagoa da genero-arrakala.

Eta gaia buruan bueltaka gelditu zitzaidan: depresioa, depresioa... Intresgarria iruditu zitzaidan depresioa



ikertzea, eta baita depresioa bizi dutenen susperraldia ere. Ikustea zerk bihurtzen gaituen gai halako egoera batetik ateratzeko, eta ez soilik zerk hondoratzen gaituen.

Nolatan dago depresioa hain lotua emakume izatearekin... edo alderantziz?

Oro har, osasun mentaleko diagnostiko gehiago egiten zaizkie emakumeei. Eta, gainera, diagnostikorik ezgaitzaileenak izan ohi dira. Gizonen jarra antisozialarekin zerikusia duten diagnostiko gehiago egiten zaizkie, agresibitatearekin eta hiperaktibitatearekin loturikoak, esaterako. Izan ere, gure ondoezak adierazteko moduak oso baldintzatuta daude kulturagatik eta generoagatik. Depresioa, adibidez, gizonen amorrutik, haserre eta beste pertsona batzuekiko eraso forman adierazteko joera handiagoa dute; emakumeok, berriz, ezinegon barrurago gordetzeko joera dugu. Genero bakoitzaren sozializazio emozionala



GORPUTZA ETA “BURU-OSASUNA”

“Psikologia erabat garunzentrista da. Ikasketa garaian garunari buruz baino ez ziguten hitz egiten. Nola dagoen prestatuta, zer zati dituen, zer funtzio dituen... Psikofarmakoez hitz egiten digute, gure garuneko substantziei eragiten baitiete, eta psikologiaren funtsa, garuneko substantzia horiek orekatzea delako. Dena burmuinean dago. Ikasketetan zehar ez ziguten inoiz gorputzeko beste atalei buruz hitz egin.

Praktika profesionalean ere – psikologia klinikoan, batik bat –, alde kognitiboa edo kognitibo konduktuala lehenesten da, eta depresioarekin zerikusia duen guztia, esaterako, pentsamendu errepikakorrei loturik lantzen da. Baina, asko dago jokoan alderdi fisiko eta emozionalean, eta, aldiz, psikologiarentzat ikusezina, eta beraz, landu ezina. Depresioan gorputzarekiko aldentze bat dago, eta gorputzera itzultzeak laguntzen du depresioari aurre egiten. Eta hori kontuan ez hartzea lotua dago gorputzaren eta emozioen mespretxuarekin, arrazionaltasunaren aurkakoak direlakoan bai bata eta bai bestea. ‘Buru osasunaz’ hitz egiten dugu, dena lepotik gora balago bezala. Baina, ez da buru-osasuna, pertsonaren osasuna baizik”.

dago horren muinean. Ikasi dugu gure ondoezak arau soziokultural eta genero-arau batzuen arabera adierazten, une historiko jakin batean. Eta hori, dena bezala, aldatzen ari da, eta interesgarria da, ondoezen adierazpen moduek etengabe informazioa ematen digutelako gizartean onartzen denari eta ez denari buruz. Zer den onargarria, zer ez, eta norentzat.

Depresioa emakumeen gaixotasuntzat hartu ohi da, eskuliburuetan tipifikatutako fenomenologia oso lotuta dagoelako emakume izate hegemonikoarekin: negarra, plazaren galera... Ondorioz, depresioak gutxiago diagnostikatzen dira gizonengan.

Horrez gain, osasun mentaleko gaixotasunak diagnostikatzen dituen ideologia ere jokoan dago horretan. Izan ere, nahiz eta gizon batek sintoma ber-

berak izan, errazago egingo zaio emakume bati depresio diagnostikoa. Emakumeei dagokiela pentsatzen dugunez, emakumeei egozten diegu. Horrez gain, gizonak beldur, erru eta estigma handiagoa dute depresioa dutela onartzera-koan. Bai pazienteek eta bai medikuek ideologia hori dute, eta sistemak berak elikatu egiten du. Autobetetako iragarpen bat da.



**Kolektibotasunaren
indarra galtzen ari gara.
Eta arriskua hor dago. Zeren
egiturazkoak diren ondoezak
badaude, eta horretan
ere jarri behar da
begirada”**

**Zein da, alde
horretatik, ikuspuntu
antropologikoaren
ekarpena
depresioaren
ulermenerako?**

Depresioari buruzko ikerketa gehienak psikologiaren eta psikiatriaren esparrutik eginda daude, eta antropologiatik, berriz, oso gutxi. Antropologiatik depresioari buruzko ikerketa bat egiten ari naitzela diodanean, jendeari “hara!” ateratzen zaio, “bereiz, psikologiaren arlokoa

bada!” Baina, psikologiaren eta antropologiaren begiradak elkarren osagarri dira. Prozesu soziokulturalek osasun-prozesuei eragiten diete, era askotara. Ez soilik generoari dagokionez. Depresioari ematen zaion esanahia, depresioaren esperientzia bizitzeko modua bera... gizarte baten baitan eraikitzen ditugu. Pentsa, depresioa Mendebaldeko testuinguruan existitzen da nagusiki. Mendebaldekoak ez diren testuinguruetan –halakorik oraindik ere existitzen bada– ez dago depresiorik. Beste asko bezala, gure kulturak sortutako gaixotasuna da.

Psikologiak gehienetan ondoeza indibidualizatu egiten du, eta kolektiboak eta kulturak daukaten garrantzia ikusezin bihurtzen du ikuspegi horrek. Eta be-

girada antropologikoak, aldiz, gizarteak eragindako ezinegona birpolitizatzen laguntzen du. Depresioa gorpuztutako ondorez sozial gisa ikustera garamatza. Zu horrela zaude egitura batzuek bizitza zailtzen dizutelako, ez soilik ahula zare-lako. Izan ere, gizarte neoliberal honek gatazka soziala patologizazioaren eta indibidualizazioaren bitartez saihesten du. Eta oso garrantzitsua da horri aurre egitea.

Ez dakit gizartearen indibidualizazioarekin loturarik izango ote duen, baina irudipena dut gero eta jende gehiago ari dela terapian, bere burua lantzen.

Estigma apurtzen ari da. Eta hori ona da. Lehen terapiara joaten zenak ez zuen kontatzen. Orain, berriz, askoz ohikoa da. Baina datuak ikaragarriak dira. Askoz psikologo gehiago dago. Fakultateak hazten ari dira, promozio izugarriak daude –gehienak emakumeak dira, noski–, ikastaro asko egiten dira, askoz kontsulta gehiago dago... Gizartea psikologizatzen ari da.

Arazoa ez da terapiara joatea, baizik eta terapiara joateak zer esan nahi duen. Zer premia sortu diren gaur egun hainbeste jende terapiara joan dadin. Esaten da lehen apaizari kontatzen genizkiola gure bekatuak eta orain psikologoari kontatzen dizkiogula. Gizartea terapeutizatzeko prozesu bat dago martxan. Terapia gehiago egiteaz gain, terapia gure bizitzako arlo guztietan txertatuta dago: eskolan, lanean... Izan ere, psikologiak, pentsatzeko paradigma berri gisa, merkatuaren behar berriei erantzuten die.

70eko, 80ko eta 90eko hamarkade-tatik aurrera, batez ere European, zerbitzuen sektorea funtsezkoa bihurtu zen ekonomian, bereziki hazi zen bezeroen arretarako langileen sektorea, eta hor



hasi ziren coaching-ak eta abarrak, estresa kudeatzen zekiten langileak produktiboagoak zirelako. Era berean, ikerketa asko egiten hasi ziren lan-psikologiaren, taldeen psikologiaren, antolaketa-psikologiaren eta abarren arloan. Izan ere, agerian geratu zen lankideen arteko harreman onak produktibitatea areagotzen zuela.

Orduan sortzen da subjektu moderno berri bat, beregaina, bere burua lantzen duen subjektua, ekintzailea, egunetik egunera hobetuz doana, norbere arrakastarako erabakiak hartzen dakien subjektua. Eta subjektu modernoaren irudi berri hori sortzearekin batera garatzen da psikologia, eta honekin batera, ordena psiko-biopolitiko berri bat. Diskurtso terapeutikoaren bidez bizitzarekiko eta harremanekiko gobernantza modu berriak sortzen dira, psikologia kontzeptuak txertatzen dira hezkuntzan, lanean, familian, eta hizkuntza horren bidez sortzen dugu gure inguruko erreallitatea ere.

Emozioak “kudeatu” egiten ditugu, dagoeneko ez gara urduri egoten, “antsietatea” sentitzen dugu. Parekoari “enpatia” falta egotzen diogu... Baina, hizkuntza honek ez al dizkigu geure buruaz pentsatzeko tresnak ematen?

Bai. Eta ez diot ez psikologiari ez terapiari bere balioa kendu nahi. Zenbait min eta sufrimendu prozesu terapeutikoekin arintzen dira, eta ez dut uste beste modu batera arindu daitezkeenik, gure ingurunea guri eusteko eta laguntzeko prest ez

dagoen testuinguru batean. Baina kontuak bere ifrentzua ere badu. Korrante psikologiko nagusietan eta terapia mota gehienetan badago zerbait komunean: gizabanakoa oso modu indibidualean aztertzea. Psikologia sozialagoak badaude, hala nola sistemikoa edo gestaltikoa, gizabanakoaren nozio askoz sozialagoak dituztenak, baina, azkenean, nork bere burua ezagutzeko modu bat dira denak ala denak. Prozesu terapeutiko orok du abiapuntu hori. Zure burua aztertuz zure biografia begiratzea, birbegiratzea, eta berregitea.

Hori ez da bere horretan txarra, noski, baina terapian eta diskurtso psikologiko hegemonikoan, orohar, ni-a da erreferentziazko leku bakarra, bestetik elkarreaginean, noski, baina ni-a dago erdigunean. Eta kolektibotasunaren indarra galtzen ari gara. Eta arriskua hor dago. Zeren egiturazkoak diren ondorezak badaude, eta horretan ere jarri behar da begirada.

Baina, diskurtso terapeutiko hau guztia ez al da primeran ezkontzen “pertsonala politikoa da” leloarekin?

Badirudi baietz, baina ez. Pertsonala politikoa zela esan zigutenean, hirurogeiko hamarkadako feminista haiek esaten ziguten gure egoera pertsonala, bat eta baikoitzarena, desberdintasun-egitura handiagoek zeharkatzen dutela. Eta uste dut batzuetan esaldiaren zentzua bihurtu egiten dela aditzera emateko nire beharrian indibidualak politikoak direla; eta bai, baina ez, zure beharrik politikoak direlako nireekin eta beste batzuenekin batera. Hain zuzen ere, horregatik da garrantzitsua diskurtso terapeutikoaren aurrean ondorezak politizatzea. Ondorezaren kausa sozialak bilatzea eta identifikatzea, alegia, kolektiboa etengabe harremanetan dauden subjektu indibidualetan nola gorpuzten den ikustea eta norbanakoak norbere historiaren biktimaroleetik ateratzea.

Sufrimendua saihetsezina da eta hor dago, eta jakina, nork bere haragian bizi du, baina gure mina bizi dugun testuinguruari erantzuten dion zerbait da, eta, askotan, bidegabekeriaren eta bereizkeriaren ondorio ere bai. Garrantzitsua da egitura horiek salatzea eta borrokatzea, berriro gerta ez daitezen. Horixe nahi zuten gure aurreko emakume feministek “pertsonala politikoa da” aldarrikatu zutenean. Are gehiago datorkigunaren aurrean. ●

DATU PERTSONALEN BABESA
EUROPAKO ARAUTEGIA

Zure enpresa egokitzan
lagunduko dizugu



SIGACUS

☎ 943 453 588 · www.sigacus.com



Hegemonia aldaketaren azken txanpa



ASIER BLAS MENDOZA
EHU-KO IRAKASLEA

Nazioarteko hegemonia lortzeko lehia elkarri eragiten dioten lau dimentsio kontrolatzeko borroka da: militarra, sozioekonomikoa, politikoa eta kulturala. Herrialde batek zenbat eta dimentsio gehiagotan hegemonia gradu handiagoa izan, orduan eta nagusitasun handiagoa izango du nazioartean.

Aspaldi AEBen inperialismo eta hegemoniaren garaia bizi dugu. Washingtonek nagusigoa lortu eta mantentzeko bi elementu konbinatu ditu: alde batetik, botere gogorra (bortxa militarra eta ekonomikoa) erabili du herrialdeak menderatu eta beldurtzeko; eta bestalde, botere biguna (pizgarri ekonomikoa eta dominazio politiko-kulturala) erabili du menderakuntza kontsolidatzeko.

Badakigu bortxaren bidez (botere gogorra) dimentsio guztiak kontrolatu daitezkeela: baliabide naturalak eta laneskua lapurtuz ('lortuz'); gobernuak eta konstituzioak kenduz edota jarritz; eta herritarrei zer ikusi, entzun eta irakurri inposatuz. Arazoa da kostu handiak dituela bortxa bidezko menderakuntza soilak. Horregatik, hegemoniak ibilbide luzea izango badu botere biguna giltza da, bai dimentsio sozioekonomikoan (maileguak, inbertsioak, diru-laguntzak...) menekotasun politiko-ekonomikoa indartzeko, bai eta dimentsio kulturean (hedabideak, unibertsitateak, entretenimenduaren industria...) menekotasun politiko-kulturala erdiesteko.

Parasitoen antzera,
diruak ekonomia
oparoak bilatu, hauek
gaixotu eta hil aurretik
beste gorputz osasuntsu
batera egiten du salto

Azken urteetan AEBek botere gogorra lehenetsi du bigunaren aurrean arriskuan ikusi duelako bere posizio hegemonikoa. Dimentsio kulturean hegemonia mantentzen dute epe luzeko ezaugarriak dituen borroka delako, baina halere, agortze-sintomak dituen geldialdi egoera batean dago, inbertsioaren gainbeheragatik (unibertsitateko kooperatibitateko programak) eta lehiaren agerpenagatik (beste potentzia batzuen hedabideak esate baterako). Berriz, dimentsio sozioekonomikoan Beijing da botere bigunaren protagonista nagusia; AEBak erretretan dauden unean Txinak gogoz hartu du tresna hau bere hegemonia zabaltzeko estrategia zentral gisa, bortxari uko eginez.

Giovanni Arrighik hegemonia kapitalistaren historia hedapen produktibo-materialaren eta finantza hedapenen arteko alternantzia gisa azaldu zuen. Honen arabera, Genova, Herbehereak,

Erresuma Batuak eta AEB izan dira herrialde hegemonikoak. Denek potentzia komertzial bilakatuz hasi zuten gorkada zikloa. Bigarren fase batean, kapital finantzarioa garatu eta honetatik ere dirua irabazten hasi ziren. Baina hirugarren fasean, igoera amaitu eta gainbehera hasten dute ekonomia espekulatiboa erreala baino handiagoa egiten denean: dirutik gehiago irabazten denean gauzak egitetik eta saltzetik baino. Laugarren fasean erorketak jarraitzen du eta azkenik, erabateko gainbehera gertatzen da kapital finantzarioak ihes egiten duenean herrialde produktibotara. Parasitoen antzera, diruak ekonomia oparoak bilatu, hauek gaixotu eta hil aurretik beste gorputz osasuntsu batera egiten du salto.

Laugarren fasean gaude, AEBek aspaldi daude diru gehiago irabazten dirutik produzitu eta saltzen dutenetik baino. Halere, ez da erraza izango AEBetako hegemonia zikloa ixtea bosgarren fasearekin (kapital finantzarioaren ihesa), izan ere, aurreko lau hegemonien arteko trantsizioak errazagoak izan ziren *etxeko* (Mendebaldeko) herrialdeen artekoa izan zelako. Oraingoan, berriz, zailagoa izango da *hegemon* berria ez delako izango Mendebaldeko herrialde liberal bat; Txina Ekialdeko kultura-zibilizazio bat da, sozialismoa eraikitzeko borondatea duena. Agertoki berri baten aurrean gaude. ●

Lapikoan sartutako igelak



SONIA GONZÁLEZ
IDAZLEA ETA ABAR



PAULA ESTÉVEZ

Hasiak gara kargutzen normaltasun berria, batez ere, beste krisi ekonomiko bat izango dela, aurrekoa baino globalagoa eta, agidanez, lehengoa baino latzagoa. Musukoak, edukiera eta distantzia soziala, azken batez, zerbait koiunturala izango da, arinago edo beranduago pasa egingo dena.

Errezeta zaharrak hasi dira muturra berriro tiraderatik ateratzen, zizare moduan. Baina izainak aplikatzea, inorentzat onuragarria baldin bada, odolaz asetzen diren animalia horientzat besterik ez da, bai eta, akaso, erremedioa agintzen duten petrikiloentzat ere. Hil dadila gaixoa, hiletara poltsikoak beteta heltzen baldin bagara.

Espainiako Estatuko aberatsenak %16 aberatsagotu dira, martxotik hona. Ez dago besterik gehitu beharrik.

Normaltasun berria terminoa hemen, gurean, jende gehienarentzat berritasuna da, oraintsu entzundako zerbait. Hala ere, ez da gaurko esamoldea; azken urteotan erabilia izan da, aldaketa klimatikoari lotuta, batik bat.

Adibidez, Kaliforniako gobernadoreak halaxe azaldu zien bere gobernatuei ezagutzen zuten normalitatea berriro itzuliko ez zela. Suteak, lantzean behingo ezbeharrak izatetik, eguneroko

ogi bihurtu behar zirela. Suteak eta geroa datozen lubizi eta basa-erauntsiak eta komunikabideen, azpiegituren eta abarren suntsiketa eta heriotzak eta galera materialak eta milaka milioi dolarretako faktura estatalak...

1983ko Bilboko uriolak iruditeri kolektiboaren parte dira, hain izan ziren lantzak, hain izan ziren ustekabekoak, hain izan ziren ondorio gogorretakoak. Baina eta zer gertatuko da lantzean behin, usu, halako batek jotzen gaituenean? Edo, Climate Centerrek ohartarazi bezala, hiru hamarkada barru Barakaldo gainez egindako erreken arteko irla bihurtzen denean? Eta plisti-plasta biziko den Kantauri isurialdetik beherago, desertifikazio prozesuan sartutako Nafarroa idorra. Hori dena, zerbait gogoangarria izatetik, gure eguneroko ohiko anormaltasun bihurtuko da.

Bide ezezagunetatik goaz aurrera. Bilakaeraren proiektzioak egin daitezke, baina hainbat interakzioak izan ditzaketen ondorioak ez dira gauza segurua. Baina ez dut esango "ahal" edo "baliteke" edo "akaso". Ez. Martxan dago honezkerro. Zalantza bakarra, ze tamaina hartuko duen. Indizeak jaisteko deiek ez dute bilatzen gelditzea, aldaketa klimatikoa maneigarri egitea baino.

Eta gu lapikoan sartutako igelak gara: bota igel bat bor-borrean dagoen eltzera eta atoa egingo du salto kanporantz; sartu apurka berotzen ari den beste batera eta apurka amaituko du egosita.

Ikusten ari gara zelan ari den birus bat, gaixotasun bat, sekulako krisi ekonomikoa sorrarazten. Zer ez ote dute ekarriko hurrengo urteek? Zer eskasia maila ez ote dute ekarriko hondamendi naturalen segidak, ur faltak, ozeanoen azidifikazioak, lur eta itsasoan ahidurak, osasun publikoaren hurrengo krisiek?

Hazkunde ekonomikoa ez da sekula normaltasuna izan historian zehar, baina gure begirada miopeak, gehieenez, industrializazio sasoiak hartzen du barne. Eta, bai, baliteke, batez ere gurek ekarritako atzeraldiak gorabehera, hazkundera araua izan izana. Baina hemendik aurrera ohitu beharko gara hazkunde sasoiak (dezimatan neurtuak) salbuespena izatera.

Eta hala ohitu beharko gara, batera zein bestera: bide beretik jarraituz gero, zalantzarik gabe; helburua, hazkunde ekonomiko mitifikatuaren gainetik, bizitza baizik ez dela inoiz, behingoz, konturatu eta horren arabera jokatzeko hasten bagara, zorionez. ●

Barre, negar ez egiteagatik



JON ALONSO
ITZULTZAILEA

Indiferentziaren eta depresioaren arteko bidearen erdian uzten nau eguneroko berripapera irakurtzeak. Haiek garaia, sumindu egiten nintzena. Ingalaterrak urrea kendu diola Madurori, Guaido kolpistari emateko (adi, neoliberalismoak ongi ikasi du *kolpe bigunak* dituen abantailak); Agoizko Gamesa itxi behar dutela (berrehun eta piko langile kalera; enpresak ez du ezkututzen ongi doala; ia inor ez da gaur egun gogoratzen haize erroten negozioaren ernamunean –Gamesa ere hortik dator– udalek debalde lagatako lurrak eta diru publikoa egon zirena); beste etxealdi bat ote datorren (gazteak pilatuta festa egiten eta COVID-19ak berriz eraso-ko ote duen sinesten ez); Zaldibarkoek hondakinen pean segitzen dutela; Echeniquek, CIAren paper desklasifikatuak direla-eta, “denok genekien” baino ez duela esateko; euskal presoak sakabarnatu eta urrutiratuta segitzen dutela, eta beren familiak betiko erromesaldian... Kalamidadeen aipatze hutsak artikuluko pare baterako ematen du.

(Beharrik tarteka berri pozgarriren bat iragazten den: Altsasukoak hirugarren gradua! Bazen garaia... baina, beste alde batetik, sekula kartzela ezagutu

behar ez zuten gazte batzuek hiru urte eta erdi baino gehiago barruan eman eta gero askatzen dituztelako pozteak, horrek berak ematen du egoeraren neurria).

Samuel Becketten *Mundua eta praka* izeneko kontakizunaz gogoratu naiz, egile irlandarrak testu batean baino gehiagotan erabili omen zuena.

Badoa gizon bat jostunarengana, praka bat egiteko. Jostunak neurriak hartu eta lau egun pasata itzultzeko esaten dio. Itzultzen da gizona, eta jostunak: “Barkatu, praka barrena luzeegi daukazu, itzuli astebete barru”. Itzultzen da gizona astebete pasata eta poltsikoak ez omen daude erabat ongi. “Barkatu. Gaizki atera zaizkit. Itzuli beste aste bat barru”. Eta horrela hankartea, botoi-zuloak, brageta...

Azkenean, enegarren bisita eta gero, praka listo dago. “Lotsagarria da –arranguratzen da gizona– Jainkoak astebete behar izan zuen mundua egiteko, eta zuk hiru hilabete behar izan dituzu praka soil bat egiteko!”

“Bai –erantzuten dio jostunak–, hori egia da. Baina konparakozu; begiratu iezaiozu munduari, eta gero begiratu nire praktikari”. ●

Zuloak Betegarriak



EDU ZELAIETA ANTA
IRAKASLEA ETA
IDAZLEA

Pentsamendu magikoaren fasean bide dago. Ez da horregatik, baina, ume txikia, 60 urte dituen gizon burutsua baizik. Pentsamendu magikoaren kontua ez da, bistan denez, haren ahotatik atera, ez eta (bizitzan lehen aldiz laguntza profesionala eman dion) terapeuta-aren gelatik ere. Ama apiril hasierako estatistiken beste biktima bat izan zen: oraingo besta-ospakizun jendetsuak egiten ari diren batzuek txalo solidarioa jotzen zuten orduan, eta irainak tuka botatzen zituzten leiho-balkoietatik.

“Putakume” oihukatu zioten halako leiho batetik, zaharren egoitzatik etxera-

ko bidean, hil berria zen ama ezin zuela une hartan ikusi jakinarazi ondotik. Inor ez zen gizon bakartia kontsolatzera joan. Deirik eta mezurik ere apenas izan zuen: urteetan ikusi gabeko urrutiko jendakiki bakanen batekin aritu zen solasean; ezezagun batekin, finean. Hiletarik eta agurrik gabe joan zen ama.

Gaitasun intelektualak ongi trebatuak dituen gizonak hilabete pare bat daralma ozenki mintzatzen bere buruarekin, tartean-tartean, etxeko bakardadean. Zerbait omen dago heriotzaren beste aldean. Egundaino huts egin ez dion amak esana. ●

Nortzuen artean eraldatuko dugu?



GOTZON BARANDIARAN ARTEAGA
IDAZLEA

Hiru hilabete ere ez dira Euskal Herriko hainbat kulturgilek greba digitalerako deia egin geniola gure jendarteari. Astebetean 1.169 atxikimendu jaso genituen www.kulturgintzan.eus web-orriaren bitartez, norbanakoenak, gehienak, zein taldekakoak. Web-orriaren bitartez ez bestela deialdiari atxikimendua adierazi ziotenen kopuruak eta aniztasunak zer pentsatua eman zigun. Euren sare sozialen bitartez zein bestelako komunikazio iturriak erabiliz gure proposamenekin bat egin zutela adierazi zuten, besteak beste, Gure Esku Dagok, Bilgune Feministak, Udalbiltzak, UEUK, EHEk, ESKk, LABek, Ernaik, EH Bilduk, Elkarrekin-Podemosek, Equo-Berdeakek, Galdakao, Usurbil, Oñati, Ataun eta Villabonako udalek, Geltokik, Askorak, Elizalde Herri eskolak, Haurtzaro ikastolak, Kirikiño Atsedeen taldeak, Aberrigintzanek, Araba Euskarazek, Txatxilipurdik, Garabidek, Topaguneak, Kontseiluak. Uler liteke jatorriz, izaeraz, funtzioz, helburuz ezberdinak diren gizarte eragile guztiok kulturgintza oro har eta beren beregi

Akaso euskal kulturgintzaren ekosistema osatzen dutenei dei egiteaz gain, gaur egun elkarrekin bizitzeko modu hau eraldatu nahi duten eragileei ere dei egin beharko genieke

euskarazkoa euren lehentasunezkatat izan nahi dituztela? Ondoriozta genezake elkar elikatuz, elkar babestuz, elkar zainduz, helburu komunak erdiesteko dinamikak abiarazi genitzakeela? Greba digitalerako deialdian zehaztu genituen helburuetatik hirugarrenak zera zioen: “Euskal Herri osoko kulturgintzaren ekosistema osatzen dugun eragile guztioi dei egitea larrialdi egoerak ahalbidetzen digunean mahai/bilera/

topaketa... bat gauzatu dezagun euskal kulturgintzaren gabezia eta premia larrirei aurre egiteko zer egin proposatu, eztabaidatu, adostu eta gauzatzeko”. Deialdi hau ez da berria. 2014an, Guk Geure Kulturaz izeneko ekimena burutu genuen. Bi batzar zabaletan, kulturgintzaren ekosistemako 300etik gora kulturgile elkartu eta premiazko neurrien zerrenda adostu genuen (<https://geuk14.wordpress.com/>). Neurri horietatik ez da bakar bat ere gauzatu, batetik eskumena duten erakunde publikoen ardura izan duten alderdi politikoek gutxietsi egin dituztelako eskariok eta bestetik, guk ez dugulako boteregunerik irabazi. Sei urteren ondoren, hartzaile berberari egin diogu dei. Akaso horretan ez dugu asmatu. Akaso euskal kulturgintzaren ekosistema osatzen dutenei dei egiteaz gain, gaur egun elkarrekin bizitzeko modu hau eraldatu nahi duten eragileei ere dei egin beharko genieke. Akaso paradigma, eredu, patroia aldatuko badugu, gainontzeko gizarte mugimendu eraldatzaileekin elkartuta lortuko dugu. ●

 **ARGIA**

ZURE JENDEA
HEDABIDEAK
IRAGARKIA



Jarri zure
publizitatea
hemen!

publiz@argia.eus
943 37 15 45
argia.eus/tarifak

AZOKA 2020



ENERGIA URRITZEAREKIN DATORREN **EKONOMIAREN UZKURTZEA**

 XABIER LETONA BITERI

Agian etxean ari zara irakurtzen erreportaje hau, paperean, ordenagailuan edo hamaika mineral daramatzan sakelako telefonoan, hormigoiz egindako eraikuntzaren babesean. Elektratresnak, autoak, errepideak, argi artifiziala, berogailua, aire egokitua... dena dago oinarritua lehengaietan eta horien artean gehienak meatzaritzan: ikatza, petrolio, gasa, potasak, magnesitak, eraikuntzarako agregatuak, harri naturalak, baterietarako litioa... Denak dira ezinbestekoak gure egungo gizarte modernoaren izaerari eusteko eta denak agortu daitezke.

Natur baliabideak bukatu egiten direnez, galdera berez dator: nola dago planetaren baliagaien biltegia? Erantzuna txarra da, naturaren baliabideak gero eta urriagoak dira, eta zerbait egin behar da. Nola gaude eta zer egin behar dugu? Galdera horri erantzunez, ingurumenaren babesean diharduen Sustrai Erakuntza Fundazioak txostena enkargatu dio Antonio Aretxabala Iruñean bizi den geologoari: *Nafarroako meatzaritza trantsizio energetiko eta globalaren testuinguru historiko berriaren aurrean*. Uztailearen 2an aurkeztu zuen hiri bereko Katakarak aretoan eta ondorio argi batera iritsi da: gehiegi xahutu ditugu planetaren baliabideak eta hark kito esan du, ezin duela gehiago eman, eta beraz, ezin duela jarraitu gure gizarte moderno eta konplexua sostengatzen duen hazkunde ekonomikoa elikatzen. Ondorioak Nafarroari begira eginak dira, baina zientzialariak dioenez, berdin balio lezakete “Espainiako Estaturako edo Europa osorako, azken finean mundu mailako ekonomia ereduarentzat baita”.

Zein da alternatiba? Azken bi hamarkadetan ekonomiaren desazkundearen mugimendua eskatzen ari den kontrako prozesua: ekonomia txikitzea, mehetzea, uzkuratzea. Adi baina, prozesu hori dagoeneko ez da borondatezkoa, Aretxabalak dioskunez, ez dago energia nahikorik munduan egungo hazkunde ekonomikoa sostengatzeko eta uzkuratzea bai ala bai gertatuko da, “planetak ez du negoziatzeko”, eta hortaz, pertsonok erabaki beharko dugu trantsizio energetiko hau nola egin, edo modu ordenatuan edo kolapso bidez.

PETROLIOAREN GAILURRA

Ondorengo erreportajea Aretxabalak aipatu txostenean deskribatzen dituen ildo nagusiak lantzen dira. Historian zehar hazkunde ekonomikoa eta energia erabilera estu lotuta egon dira eta humanitateak beti erabili du energia bere garapen ekonomikorako. Zenbat eta hazkunde ekonomiko handiagoa, orduan eta energia erabilera handiagoa. Gaur egungo terminoetan esanda, zenbat eta Barne Produktu Gordin (BPG) handiagoa, are eta energia gehiago behar izan da hazkunde horri eusteko. Ekuazio hori beti egon da estu lotuta historian zehar.

Nazioarteko Energia Agentziaren (IEA, ingeleseko sigletan) arabera, *peak-oil* edo petrolio gailurra 2005-2006 artean eman zen eta energia fosilen gai-

lurra 2018an. Horrek esan nahi du, hemendik aurrera energia kopuru gutxiago izango dugu la erabilgarri eta, beraz, trikimailuen gaintetik, ekonomiak uzkartzeko joera izango duela.

Gaur egun munduan kontsumitzen den energiaren %86 jatorri fosilekoa da (petrolio, ikatza, gasa...) eta %14 jatorri berriztagarrikoa. Kontua da energia sortzeko energia gastatu behar dela eta energia sortzea gero eta garestiagoa dela; hots, energia kopuru bera sortzeko gero eta energia gehiago erabiltzen dugu edo, bestela esanda, energiaren berreskuratze tasa (EBT) gero eta txikiagoa da. Esate baterako, XX. mendeko 30eko edo 40ko hamarkadetan petrolio upel batekin 50 upel lortzen ziren (1:50); edo gasa 1:150 proportzioan eskuratzen zen. Fosilen EBT oro har –ikatzar barne– 1:44koa izan zen iragan mendeko 60ko hamarkadan.

Baina gero eta energia gehiago bideratzen dugu energia lortzera, eta EBT tasa gero eta txikiagoa da, gero eta azkarrago jaisten da: gaur egun 1:15 baloreetan gaude. Ikerketa asko daude eginak alor honetan eta Aretxabalak bibliogra-



SUSTRAI ERAKUNTZAK

enkargatu dio txostena Antonio Aretxabalari eta elkartearen webgunean eskura daiteke.

fia zabala eskaintzen du bere txostenean. Adituen kalkulua da 1:10-1:5eko tartetean arazo handiak izango ditugula. Miraria energia berriztagarrietatik espero da, baina hauen berresku-

ratze tasa (EBT) are eta txikiagoa da: hidroelektrikoarena 1:6,5 da; lurreko eolikoarena 1:2,9 eta 1:2,3 artean dago; eta eguzkiaren fotoboltaikoarena 1:1,8. Garbi esanda, EBT horiekin ezinezkoa da gaur egungo hazkunde ekonomikoa sostengatzea. Egiazki, mundu mailako ekonomia dagoeneko uzkartzen ari da 2008tik aurrera.

Energia xahutze horren guztiaren ondorioak oso larriak dira mundu mailan eta kalterik agerikoena aldaketa klimatikoa da, baina bizi izandako krisi ugariaren sustraia ere geologikoa da, nahiz eta finantzaz edo bestelako moldez bakarrik jantzita azaltzen zaizkigun. 2008ko krisian, berbarako, lehenik funtsezkoa izan



zen energiaren garestitzea, eta ondoren, energiaren salneurrien ezegonkortasuna. BPG datuek gora egin dezaten amarru ugari erabiltzen badira ere –zorra, energiaren esternalizazioa, ezohiko ustiaketak...–, egiazko ekonomiak mehetzen jarraitzen du harrez gero.

Frackingaren ustiaketaekin estali nahi izan zen ohiko petrolio onaren agortzea iragan hamarkadan, baina negozio hori beti defizitarioa izan bada ere, une batean hainbaten intereskoa izan zen merkatura upel kantitate handia sartzeko, prezioek behera egin zezaten. Ondorioak latzak izan ziren, baina frackingarekin gertatutakoa zabalago landu dugu erreportajeko laukietako batean. Orain, aldiz, COVID-19aren pandemiarekin eskasiaren arazoaz gain, oso agerian geratu dira hornitze arazoak, bai energiarekin eta baita mundu globalizatuan atzera aurrera dabiltzan beste milaka produktuekin ere.

INSTITUZIOEN ERANTZUNA

Energiaren agortzeak dakarren aldaketa hau guztia ezaguna da munduan, era askotako zientzialari, ekonomialari eta erakundek aspaldi piztu zuten argi gorria, eta instituzio nagusienak hasi dira trantsizio ekologikoa eta energetikoa prestatzen, ekonomia egokitzen. 2015ean NBEk Garapen Jasangarrirako

17 helburu eta 169 helmuga finkatu zituen. Agenda honekin planeta osoaren ongizatea bilatzen da, ingurumenarekin armonian biziko diren pertsonen bizimaila hobetzea; eta funtsean, inklusio soziala, ingurumenaren jasangarritasuna eta garapen –ez ezinbestean hazkundea– ekonomikoa bultzatzen dira. Egitasmoak 2015-2030eko epea du gauzatzeko eta helburuen artean dira justizia soziala, gobernantza parte-hartzailea eta, baliabideen eta natura kapitalaren kontserbazioa.

BESTELAKO MUNDUA ERAIKITZEKO UNEA

Aberatsenak jaun eta jabe izango diren kaosa ala urrituz joango den aberastasuna banatuko duen gizarte eredu berria eraikitzeak abagunea baliatu, horra aukerak

Europar Batasuna ere murgildu da trantsizio horretan eta haren erakundeak SC/048 Irizpena onartu dute ekonomia eredu berrien garapena bultzatzeko. Joan den azaroaren 21ean aur-

keztu zuten Iruñeko Civicen-en. Aretxabalaren ustez, oster, argi utzi behar da hor bultzatzen den ekonomia eredu guztiz bateraezina dela egungo antolaketa sozialarekin. Gaur egungoa “erauzi, ekoiztu, eduki eta bota” laukotean oinarritua dago eta hondakin fosilen gain-beheran. Eredu hori jasanezina da.

Ekainaren 4an, Nafarroako Industriaren Elkartek (AIN) antolatutako jardunaldietan parte hartu zuen Maria Mendiluce Garapen Ekonomikarako Enpresen Mundu Kontseiluko ordezkariak eta “mundu eta ekonomia jasangarriagorantz egitea posible dela” luzatu zien bertan bildutako industria gizon-emaume eta agintariei. Pandemian izandako geldione ekonomikoari erreferentzia eginez, Mendilucek azpimarratu zuen ezinbestekoa zela egungo hornitze sareak gertuagokoak bihurtzea.




Kaltzita



Magnesita

ENERGIA PRIMARIOEN KONTSUMOA MUNDUAN (1800-2017)

Neurgailua: Terawatt/orduak urteko
Iturria: Vaclav Smil (2017) eta BP Statistical Review of World Energy / Our World in Data
Koloretan ikus daiteke energia mota bakoitza sartzen den garaia eta duen garrantzia, baina oso ondo ikusten da gehitzen den energia mota bakoitzak ez duela ordezkatzeko aurretik zirenak eta gehitu egiten direla lehendik datorren kontsumora. Akatsa da esatea humanitatea esklabotza eta egurretik balea-oliora iragan zela eta ondoren ikatzera, edo humanitatea ikatzetik petroliora eta gasera pasatu zela. Errealitatea ondo adierazteko modua zera da: humanitateak esklaboak (gaur egun ere inoiz baino gehiago ditu) eta egurra izan zituen, eta horiei gehitu zitzaizkien bale-olioa, ikatza, petrolio, gasa, nuklearra eta berriztagarriak.



DENA DA BERDE ORAIN


Instituzioen eta enpresen munduan hasi dira ohartzen egoeraz, baina trantsizioaren fruitua heldu gabe dagoela argi dago. Ann Westmann EBko Ekonomia kontseilariaren esanetan, trantsizio energetikoa egin beharreko bidea da, baina “hazkunde ekonomiko jasangarria” ere bai, bi kontzeptu horiek –hazkundera eta jasangarria– bateragarriak balira moduan. Areago, CO₂ igorpenak eta BPGaren hazkunde ekonomikoa deslotu zituen, erakunde ugariaren baieztapen eta ikerketek diotenaren aurka.

Ez da bakarria, aldiz, gertuago ere badira pentsamolde bertsua adierazten dutenak. Mikel Irujo Nafarroako Gobernu Kanpo Ekintzarako zuzendariak duela gutxi idatzi zuen “Green Deal, ekonomia eraldatu eta planeta salbatzeko itun berdea” artikulua (*Green Deal Europe*. Nafarroako Gobernu) eta bertan zehazten zuen etorkizunean “hazkunde ekonomikoa baliabideen erabileratik deslotuta egongo dela”. Aretxabalak bere lanean behin eta berriz dioskun gisan, hori ez da posible eta, besteren artean, oso argi ikusten dela 1972an argitaratutako *Hazkunderaren mugak* (*The Limits to Growth*) txostenean.

Gainera, energia berde gisa saltzen dena ere ez da guztiz garbia. Esate batera, mendian eraiki diren haize-errotak altzairuz eta zuntz-beiraz eginak daude, agregatuekin egiten dira mendietako pistak, dena kamioietan garraiatzen da goraino eta mantenurako ere autoak erabiltzen dira... garraio hori guztia dieselaz dabil eta dieselen produkzio samurra gero eta gaitzagoa da, ohiko petrolio gordina gero eta urriagoa delako.

ZIENTZIA, ERLIJO BERRIA

NBEaren 2030eko agenda edo Europar Batasunaren irizpenei entzungor egiten zaie enpresa eta eremu instituzional zabaletan, pentsatuz orain galeran diren baliabide batzuk etorkizunean beste batzuek ordezkatu dituztela. Baina hori –jarraitzen dugu Aretxabalaren esanak azalduz– desioen munduko nahia da, ez egiazko mundu honetakoa. Juan Luis Arsuaga zientzialari espainiarrak dioen legez, asko dira zientzia erlijioarekin parekatzen dutenak, jainkoarekin, zientziak dena lor dezakeelakoan, baina zientziak ez du miraririk egiten. Baliabideak agortu egiten dira eta ez dago hazkunde ekonomikorik baliabide horiek gabe. Historian inoiz ez da halakorik ikusi, eta ekonomia hazi denean beti ener-





gia gehiago kontsumitu da. Ez da inoiz izan ekonomiaren uzkuertze boluntario-rik; uzkuertzea beti egon izan da pandemi- edo gerrei lotua, eta kasu horietan, energia kontsumoa ere jaitsi izan da.

Agintari askoren heldulekua da ikuspegi hori: “Zientziak sortuko du zerbait” eta herritarrei ere botika hori saltzen zaie. Ekonomia ezinbestean txikitu beharraren diskurtsoa ez da herritarren gustukoa eta gustu txarreko txantxa dirudi ugaritasunera ohitutako gizartean, baina ezinbestekoa da dagoeneko biztanleriaren erdia pobrezian bizi den mundu honetan.

Teknologiaren bidez energia eraginkorrago erabiliko dela sinetsi nahi da, baina bi zehaztapen bederen egin

BEROTEGI-EFEKTUKO GASEN EKARPEN NAFARROAN OHIKO SEKTOREKA





Magnesitas Navarras SA-k Zubiriko eraikuntza zabaldu nahi du eta beste ustiaketa bat ireki Erdiz-en. Nafarroan diren jardueretatik CO₂ gehien isurtzen dutenen artean dago Magna.

behar zaizkio diskurtso horri: batetik, posible da energia eraginkortasuna, baina historian hori lortu den bakoitzean, “errebote eragina” gertatu da; hau da, eraginkortasun horren emaitza ez da izan energia gutxiago gastatzea, gehiago baizik. Jevonsen Teoremak azaltzen du hori: efizientzia energetikoa lortu den bakoitzean, produkzioa handitzeko erabili izan da eta, hortaz, beti energia eta lehengai gehiago kontsumitu izan dira. Bestela esanda: ekonomian erabili izan diren energia mota berriek inoiz ez dituzte ordezkatu ordura arte erabiltzen ziren energia motak, beti lehengoei egindako gehikuntza izan dira, horrela energiaren erabilera gutxitu beharrean handituz.

BPG-AN EGINDAKO IRUZURRA

2008tik gaurdaino desazkundea dagoe-neko gertatzen ari da egiazko ekonomian, baina hainbat tokitan lortzen da BPG eta energia kontsumoa bereiztea, lehena haziz eta bigarrena urrituz. Hori, alabaina, gure burua engainatzea da, iruzur egitea. Europak, esaterako, lor dezake hori, baina energiaren produkzioa bere herrialdeetatik Txina, India, Afrikara edo beste hainbat lekutara aterata. Funtsean, BPGak mugetan oinarrituta egin daitezke, baina planetari begiratuta emaitza berbera da: Europak ez du berak erosi edo ekoiztuko dituen produktuen energia sortuko eta, beraz, ez ditu energia kopuru horiek bere gisa kontabilizatuko, baina

haien kontsumorako ezinbestekoa den CO₂ berdin zeruratuko da Txinatik edo Indiatic.

Edo gerta liteke baita ere hazkunde ekonomikoa zorraren bidez finantzatzea, gero eta gehiago gertatzen ari den gisan, baina kasu horretan, klase ertainak gero eta gehiago zorpetu eta pobretzeaz gain, arazoa ondorengo belaunaldien esku uzten ari gara.

Aretxabala argia eta zehatza da bere ondorio eta ohararazpenetan. Hazkunde ekonomikoak etengabe sortu izan ditu hainbat burbuila, lehertu ondoren krisi bihurtu direnak. Bada ordua etengabe ha-

rri beraren gainean estropezu ez egiteko. Irtenbide teknologikoak baliagarriak izan daitezke desazkundearen bidean, beti ere automatismoak ez badira erabiltzen burbuila berriak sortzeko eta bai NBERen 17 helburu jasangarriak egikaritzeko. Gure helburua da egungo dinamika bihurria gaingitzea, hau da, egungo ekonomiak ez du balio hazten ez bada, eta hazten bada, bere hazkunderako behar dituen oinarri naturalak suntsitzen ditu. Aberatse-nak jaun eta jabe izango diren kaosa ala urrituz joango den aberastasuna banatuko duen gizarte eredu berria eraikitze-ko abagunea baliatu, horra aukerak. ●



Magnesitas Navarraren meatzea.


Nafarroan ustiatzen diren meatzaritza materialak

Gaur egun ondoko material geologikoak ustiatzen dira Nafarroan. Industriadako material ez-metalikoak: magnesita, kaltzio karbonatoa, igeltzua, gatz arrunta, potasa, buztina, zeramika, kaliza eta marga. Eraikuntzarako agregatuak eta arroak: kalizak, hondarrak eta silizio legarrak, ofita eta beste arroka industrialak. Hemen nabarmentzen hainbat datu.

Eraikuntzarako agregatuak. Uraren ondoren gizakiak gaur egun gehien kontsumitzen duen lehengaia da, bereziki Mendebaldean. Planetako pertsona bakoitzak bere bizitza osoan 850 tona agregatu kontsumitzen ditu, 10.000 bider bere pisua; ohiko eraikuntza lanetan ikusten ditugun 32 kamioi dira. Autopista, aireportu, trenbide, zubi, etxe... dena dago egina agregatu hauekin eta produktu horien artean hormigoi armatua da jaun eta jabe: mende bateko historia bakarrik du material honek, baina lurrazalaren itxura erabat aldatu du.

Munduan gaur egun 4.000 milioi tona zementu ekoizten dira eta horrek dakar mundu mailako CO₂ igorpenen %10. Bestela esanda, azken 60 urteetan 8.000 milioi tona plastiko produzitu dira, hau da, bi urtetan zementutik sortzen dena. Gaurko munduko biztanleen %70 bizi da zementuaren azpian. Eta gogorra da hormigoia bai, baina denboraren ikuspegitik begiratuta oso ahula, gehienez 120 urteko iraupena baitu. Hondarrezko gatzeluz eraikitako mundua dugula, alegia. Ondorioz, etorkizunean material hau gogotik birziklatu beharko dela aurreikusten da.

ERAIKUNTZARAKO AGREGATUEN KONTSUMOA ESPAINIAKO ESTATUAN (1980-2018 MILIOIKA TONATAN)



Agregatuen %98,7 naturalak dira, %0,9 birziklatuak eta %0,4 artifizialak. Iturria: ANEFA

Noiz izan zen Nafarroako agregatuen gailurra? 2008aren aurretik Nafarroan 14,4 tona kontsumitzen zen urteko eta pertsonako (Espainiako Estatuan 10 tona biztanleko eta Europako batez bestekoa 8 tona biztanleko zen). 1997 eta 2007 artean izan zen agregatuen kontsumo gorrena. Gaur egun batez ere Abiadura Handiko Trenerako erabiltzen da eta trenbide kilometro bat egiteko 2.047.000 milioi tona agregatu erabiltzen dira.

Magnesita. Magnesio karbonatoa eta, manganesoz, burdinez, nikelaz, kobaltz eta kaltziaz osatutako mineral konposatua da. Batez ere animalien elikaduran eta ongari bezala erabiltzen da. Nafarroa Espainiako Estatuko ekoizle handiena da (guztiaren %80-90) eta Europako handienetakoa. Magnesitas Navarras (Magna) enpresak ustiatzen du magnesita lurraldean. Gaur egun, Zubiriko instala-

zioak handitu nahi ditu eta Erdizen ustiaketa berri bat bideratu, Alduide mendiko ingurune naturalean. Nafarroako hirugarren CO₂ ekoizlea da Magna, baina hala ere, eta iaz "larrialdi klimatikoa" onartu arren, Nafarroako Gobernuak "interes publikokoa" jo du proiektua.

Potasa. Izen honekin izendatzen dira potasioa daramaten konposatu mineralak eta materialak, eta horien artean potasio kloruroa da arruntena. Batez ere erabiltzen da elikagaien industrian, ongariak egiteko eta abereentzat elikagaiak ekoizteko. Geoalkali da Nafarroan jardueraren onetan diharduen enpresa, Australiako Haighfield Resources-en filiala, eta batez ere meatzaritza espekulatiboan aritzen da, Antonio Aretxabalak bere txostenean azaltzen duenez. 1997tik ez da potasa ustiapenik egiten Nafarroan, baina orain Geoalkalik Muga meatzearen proiektuarekin ustiaketa berria bideratu nahi du Zangotza, Xabier eta, Aragoiko Urdues de Lerda eta Urdueseko mugetan.

Mahaiko gatz. Sodio kloruroa da. Mahaian erabiltzen da, baina baita arrainen eta haragien kontserbatzaile gisa ere, edo errepideetan elurra eta izotzari aurre egiteko. Gatz lurruntze naturalaren bidez lortzen da. Gaur egun jaitzeko gatzaga da Nafarroako ezagunena, baina beste asko ere izan dira (Xabier, Lerin, Mendabia, Zizur...). Jaitzeko ustiaketa oso estimatua da, besteak beste, Nafarroan gatz ekologikoa ematen duen bakarretakoa delako. Uztailaren amaieran urtero ospatzen da gatzaren eguna. ●



Frackingaren gainbehera munduan

Frackingaren unea. 2006an eman zen ohiko petrolioaren historia-ko erauzterik txikiena. Harrez geroztik petrolio ekoizpena %30 hazi zen frackingari ezker, baina 2014an eten handia izan zuen. Ondoren berriz berreskuratu zen produkzioa eta gaur egun negozio honetan ari diren enpresak bata bestearen atzetik erortzen ari dira. AEBak munduko petrolio ekoizlerik handiena bihurtu ziren eguneko ia 12 milioi upeleko ekoizpenarekin, beti lehena izan den Saudi Arabiaren aurretik, baina herrialde honek bere produkzioan erabilitakoa baino 100 aldiz energia gehiago erabilia.

2012 eta 2019 artean,
oraindik COVID-19aren
inongo berririk ez zenean,
30 konpainia handienen
artean 50.000 milioi
dolarretik gora galdu zuten

Oso garestia. Haustura hidraulikoa edo frackinga aspaldi ezagutzen zen, baina oso garestia izan da -500-5.000 metro-raino jo behar da lur azpian- eta ez da erabili izan modu masiboan ohiko petrolio gordina urritzen hasi arte. Funtsean, energia berreskuratze-ko tasa (EBT) txikia du, hau da, energia kopuru handia inbertitu behar da energia lortzeko. Kasurik onenetan eman izan du EBT 1:5 / 1:10 artean (1:5, inbertitutako energia unitate 1etik 5 lortzea). Baina izan dira baita ere 1:1eko EBTak, hau da, ez da energiari irabazi.

Hondamena. Frackingaren industria beti bizi izan da zenbaki gorrietan, baina, Aretxabalak dioenez, dolarrek artifizialki eutsi izan dio. 2012 eta 2019 artean, oraindik COVID-19aren inongo berririk ez zenean, 30 konpainia handien artean 50.000 milioi dolarretik gora



galdu zuten. Eta 130 enpresa handien galerak (Europako) bilioi bat dolarre-raino iristen dira. Ospetsuak izan ziren 2006-2016 artean ExxonMobil Corporationeko zuzendari exekutiboa izan zen Rexon Tillerson-ek 2012an New York Times-i adierazitakoa: "Frackingaren negozioarekin alkandora ere galdu dugu". Gero Donald Trumpek energia idazkari izendatu zuen. 2014an 100 dolarre-tan izan zen petrolio upela -pandemian 20tik behera ere jaitsi da- eta orduan ere ez zen errentagarria izan.

Gasa ere larri. Frackingaren bidez erauzten da neurri handi batean gasa eta trantsizio ekologikorako erregai bezala ikusi izan da, baina gero eta gehiago jartzen da zalantzan hori, bere erauzketan metano asko askatzen delako besteak beste. AEBetan Massachusetts, Kalifornia eta New York-ek gasaren erabilera baztertzeko prozesuari ekin diote eta dagoeneko Kaliforniako 30en bat hirik

eraikuntza berrietan gasaren erabilera debekatu dute. Finantza hondamenaz gain, hondamendi ekologikoa ere oso handia izan da, eta hauen harira herri-tarren eta enpresen arteko ehunka auzi izan dira epaitegietan.

Akabo European. European dagoeneko ez da fracking gasik erauzten. Polonia eta Errumania puntan ibili ziren gas mota honen ekoizpenean, baina lortutako gasa oso zikina zen eta ez zuen lortu merkaturuan sartzea. Euskal Herrian ere izan ziren zundaketak egiteko baimenak, baina azkenean Nafarroako Legebiltzarrak 2013an debekatu zuen haustura hidraulikoa eta Eusko Legebiltzarrak 2014an. Espainiako Konstituzio Auzitegiak atzera bota zituen parlamentuon ebazpenak, eskumen horiek Espainiako Gobernuarenak zirela argudiatuz. Madrilgo gobernuak prestatzen ari den trantsizio ekologikora-ko legearekin, ezingo da fracking jarduerarik bideratu estatuan. ●

ANA MEZO

PENTSIONISTAK MARTXAN-EKO KIDEA



Mila bider eskatu arren ez dugu lortu Urkullurekin batzarra egitea”

Kalera indarrez bueltatzeko beharra argi ikusten du Ana Mezo, Oneka emakume pentsionisten plataformako kideak. Birusak zaintza arazoak eta gabeziak mahaigaineratu dituen honetan, borroka sozialen atomizazioa bukatzearen beharra defendatu du.

 JUNE FERNÁNDEZ  AIKOR ALDIZKARIA

Pikara
online magazine

Elkarrizketa hau Pikara Magazinek argitaratu du eta Creative Commons lizentziari esker ekarri dugu.

Ana Mezo (Larrabetzu, 1955) Pentsionistak Martxaneko kidea da eta baita ere Oneka euskal emakume pentsionisten plataformako bultzatzaileetako bat. Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta prozesuko partaidea ere bada.

Larrabetzuko taberna batean geratu gara deskonfinamenduaren hasieran. Telebistan, Arantxa Tapia Ekonomia sailburua agertu da eta kasualitate hori ironiaz komentatu du Mezok. Nerbio eta hitz jario handiko emakumea da, presentzia alai eta karismatikoduna.

Zergatik sortu zenuten Oneka?

Pentsionisten mugimendua 2018ko urtarrilean hasi zen kalera irteten, eta ekaina aldera hasi ginen pentsatzen اندrazkoen talde bat sortzeko beharra geneukala, gure berezitasunez hitz egiteko eta gure planteamenduak garatzeko.

Udazkenean egin genuen akta konstituzionala eta irten ginen prentsa aurrera. Euskal Herritik Euskal Herriako planteamendua da, Hego Euskal Herrikoa oraingoz; Iparraldean kontakturen bat egin genuen baina erritmoa beste bat da.

Pentsiodunen mugimenduaren baitako joera patriarkalei aurre egitea izan da اندrazkoen plataforma sortzearen beste arrazoi bat?

Bai, hori zertan esan... Beti adi egon behar dugu. Kapitalak alde batetik eta heteropatriarkatuak bestetik, eragina dute. Pentsa ezazu zenbat kostatu den eta zenbat kostatzen den gaur egun ere andreak gure prestigioa, legitimitatea eta errespetua lortzea eta mantentzea. Onekaren kasuan, kide asko, ez badira alargunak, beraien bikotekideekin bizi dira, gehien-gehienak gizonak. Bakar-

dade handia dago, indarkeria... Adineko emakume askori kostatzen zaio kalera irtetea. Oso zaila da. Badira emakumeak lan handia egin dutenak, baina etxetik, zaintza lanetan eta bestelako lanetan. Indarkeria ekonomikoa oso inportantea da, beti aipatzen dut. Gizon askok diote: “Nik ekartzen dut dirua etxera eta zu nire esanetara”. Sumisio derrigortuan bizi dira eta ezin dira banandu dependentzia ekonomikoagatik. Gauza horiek guztiak gure artean hausnartu behar ditugu eta gure planteamendua egin. Gertatu izan zait gizon batekin hitzaldi bat ematera joan eta gizonak hitzaldia bere gain hartu izana. Beharbada gizon hori oso sentsibilizatuta dago berdintasunarekin, baina hain da kulturala... Askok borrokatu behar da. Mistoan ibili behar da, aniztasuna oso aberasgarria delako, baina guk geuk ere behar dugu espazio propioa.

Ahalduntzeko, ezta?

Ahalduntze hitzari buelta bat baino gehiago eman dizkiot. Uste dut ahaldunak bagarela, gaitasunak ditugula, baina espazioak ditugu murriztuak, kenduak. Familietako ekonomia nork antolat du? Gehienetan andrazkoek. Gainera, ekonomia berba grekotik dator eta bere esangura nagusia da etxe barruan egiten den gestioa. Gaur egun, ordea, makroekonomiari buruz berba egiten da, gizonezkoek berba egiten digute normalean, eta oso aditua ez bazara eta formazio akademiko handia ez baduzu, ez duzu ezer ulertzen. Uste dut apropos egiten dutela. Orain, koronabirusaren garaian, gabezia asko oso agerian geratu dira. Badakigu adineko egoitzetan zer gertatu den... Birus honek ez du bereizten emakume ala gizon, baina bakardadea batez ere andrazkoek bizi dute. Alargunen artean, %93 inguru andrazkoa da. Sare familiar handia ez baduzu gertu, oso bakarrik zaude.

Entzun zaituztet azaltzen emakume zahar askok pentsio eskasa dutela politika frankistaren ondorioz, eta hortaz diktaduraren indarkeria ekonomikoaren biktima gisa aitortu beharko lituzkeela Estatuak. Azaldu dezakezu?

Bai, nik hitzaldietan asko aipatzen dut. Lege horiek Espainiako Gerra Zibilaren aurrekoak dira eta ibilbide bat izan dute. 60-70eko hamarkadan emakume batzuk aritu ziren lan produktiboan, tailerretan eta. Ezkontzen zirenean "dotea" ematen zioten, indemnizazio bezalako bat, emakumea etxera joan zedin, zaintza lana egitera. Geroago ere, diktadura apur bat bigundu zenean eta etxetik kanporako lan produktiboa egitera joaten zenean emakumea, bere senarraren baimena behar zuen. Emakume horiek legeak aginduta geratu ziren kotizatu barik. Era berean, egin duten lan erreproduktiborri esker, instituzioek pila bat diru aurreztu dute: alegia, haur eskoletan edo zaharren egoitzetan inbertsio urria egin zuten, andreek zainketa lana doan egiten zutelako. Hori ere ekarpen ekonomikoa bada: EUSTATen arabera, ordaindu gabeko etxeko lanaren balioa ekoiztutakoaren (BPGaren) %32,4 da.

Gainera, landa eremuan emakume baserritarrek lan produktiboa egin dute, baina hori ez da lan gisa aitortu, laguntza gisa baizik.

Badakigu andrazkoek baserri bueltan zenbat behar egiten zuten: etxekoa, ortukoa, ganadua, seme-alaba piloa... jainkoak gura zuen beste! Eta baserrietan aitite-amamak ere bizi ziren. Larra-betzuko baserrietan ekonomia mistoa egon da: gizonak fabriketara joaten ziren beharrera. Lurraren ardura, nork zuen? Andre horiek ez badute errespetua merezi...

Atzera begira, zer lortu du pentsionisten mugimenduak eta zer dago lortzeke?

Kalera irten ginen 2018. urtean PPko ministro hark %0,25eko igoera xumea iragarri zuelako. Edalontzia beterik zegoen eta hori izan zen azkenengo tanta. Kalean lortu genuen igoera %1,6koa izatea. Kaleko presioaren bidez ere lortu da Madrilen PSOE, Unidas Podemos eta EH Bilduk sinatu duten lan erreformaren indargabetze integrala. Beste bide batzuk ere jorratu ditugu, bereziki, indar politikoekin egin diren batzarrak. Ez duguna lortu, eta mila bider eskatu dugu, Urkullurekin batzarra egitea izan da.

Badakizu disidentzia bat ere badugula. Ondo, eh? Beti gertatzen da. Baina disidentzia [Espainiako] Estatuari begira dago, UGT eta CCOOko jendea dago hor, Toledoko Itunean oinarritutako elkarrizketa sozialean kokatzen dira, eta hortik kanpo geratzen den guztia beharbada ezin dute eskatu. Indar politiko bati edo besteri interesatzen zaio disidentzia egotea, kalean dauden mugimendu sozialek enbarazu egiten diotelako.

“
Ezinbestekoa da helduak inplikatzeko. Krisi honen aitzakiarekin kaleratzen bazaituzte, zer egingo duzu? 50 urterekin ez duzu etorkizunik”

Mugimendu feministak esan du momentu hau abagunea izan daitekeela agerian geratu den zaintza krisi sistemikoari aurre egiteko.

Nola aprobetxatu ahal dugu?

Guk zaintza publikoa eskatzen dugu, pentsio publikoak eskatzen ditugun bezala. Indarrak batu behar ditugu eta denok kalera elkarrekin atera. Esan dute udazkenean birusaren gorakada egongo dela. Gabezia guztiak mahaigai-

neratu dira, baina bakoitza bere etxean sartu behar izan da eta berriro ere sartuko gaituzte. Arrisku hori badago, erne egon behar dugu.

Lortu da feministekin eta ikasleekin indarrak batzea?

Baietz uste dut. Martxoaren 8an, Aza-roaren 25ean eta urtarrileko greban orokorrean batu gara. Eta metaleko langileen greba lagundu dugu. Ni oso Bilbozalea naiz, eta Bilbora joatean ikusten nituen ez dakit zer langile multzo pankarta batekin auzo batean, hurrengo egunean beste auzo batera joan eta beste langile multzo bat... Horrela boterea oso pozik dago. Borroken atomizazioa amaitu behar dugu, funtsezkoa da indar politikoak interpelatzeko. Gazteak bai, baina era berean ezinbestekoa da helduaroan dagoen jendea inplikatzeko. Konfinamendu honetan, krisiaren aitzakiarekin kalera-tzen bazaituzte, zer egingo duzu? 50 urterekin ez duzu etorkizunik. 2008ko krisian hala gertatu zen eta hura aitzakiatzat hartuta, kristoren dramak sortu zituzten.

Egoera hori errepikatuko da orain datorren krisian...

Bai, birus hau aitzakia izango da berriro ere. Gure errebindikazio bat izan da 2008tik etorri den problematika hori konpontzea, alegia azkenengo urteetan ez kotizatzeagatik jartzen dituzten penalizazioak kentzea. Nire edadeko jende askok ez zuen aukera eduki unibertsitatera joateko. 16 urterekin hasi ziren lanean, 58 urterekin kaleratu egin dituzte eta kotizatu ez duten urte bakoitzeko %8ko penalizazioa ezarri zaie. Egon zara 40 urtez lanean, beste norbaitek eraginda lan barik geratu zara, zure enpresa zarratu da eta kristoren penalizazioak dituzu.

Kotizazioetan genero arrakala itzela da gainera...

Duda barik! Andrazko alargunen laurdenak 500 eurotik behera kobratzen du. Esango didazu pentsio horrekin nola piztuko duzun berogailua neguan!

Edo egoitzan plaza bat ordaindu...

Gehienak oso garestiak dira, asko pribatuak dira eta. Baina etxean arreta jasotzeko, familia sare nahikoa ez baduzu, nola ordainduko dituzu hiru erizain? Europen dauden bestelako ereduak mahai-gaineratu beharko genituzke, badago



ZAHAR EGOITZETAKO SARRASKIAZ. “Ezin dut ulertu, gerra eta gerraostea pasa duen jendea XXI. mendean bakarrik hiltzen uztea. Eta ez diot sanitarioengatik, asko egin dute-eta”.

nondik ikasi: etxe kolektiboak, esaterako. Ez bere horretan hona ekartzeko, baina bai hausnartzeko eta aukera berriak planteatzeko. Gainera, gogora dezagun zaindu behar gaituzuela, baina gu era berean zaintzaileak garela, batzuk menpekotasun egoeran egon arren. Hemen familia kontziliazioa ez dago konponduta.

Nola bizi izan dute konfinamendua zuen plataformako emakumeek?

Itxialdiak traba asko ipini ditu. Batzarak egin ditugu Emakunderekin eta alargunen elkarteekin. Institutioek beti esaten dute laguntzak daudela, baina ez baduzu teknologiak erabiltzeko ohiturarik, oztopo-lasterketa da. Telefonoz bada: “Sakatu bat, bestela sakatu bi...”. Aurrez aurre bada ere, leihatilaz leihaita bidaltzen zaituzte. Hori guztia beste modu batera gestionatu beharko lukete instituzioek. Birus madarikatu honen testuinguruan, lotsagarria izan da eda-

deko jendea bakarrik hil izana. Ezin dut ulertu, gerra eta gerraostea pasa duen jendea XXI. mendean bakarrik hiltzen uztea. Eta ez diot sanitarioengatik, asko egin dute eta. Drama bat izan da.

Gipuzkoan, adineko talde batek Irauli Zaintza plataforma sortu du Malen Etxea emakume etorkinen kolektiboarekin elkarlanean. Etxeko langile egoiliarren figura esklabotza dela salatu dute. Itxialdian adineko pertsonak hil dira eta zaintzailea geratu da babesik gabe, etxerik gabe...

Kontu hauek beste era batera kudeatu behar dira. Udalek ahalmena dute etxeetan zer arazo dauden jakiteko. Institutioek egin ahal dute kontratu bat, eta zahar bat hiltzen denean, langilea kalean geratu ordez, beste nonbaitera bidali. Europako iparraldeko ereduaren aldean, eredu mediterraneoan familia sarearen bizkar uzten da arazoaren kon-

ponbidea eta ez horrenbeste Estatuaren gain. Oso kulturala da eta erotik apurtu behar da.

Zaintzaileekin aliantzak egin dituzue?

Batez ere Babesturekin, egoitzetan senideak dituzten elkartearekin. Sestaon egoitza batean egun batetik bestera prezioak igo zituzten. Senideak batu ziren eta elkarte sortu zuten. Jardunaldi batzuk egin zituzten eta liburu bat atera dute ponentziekin eta eztabaidarako proposamen batekin: “*Mirando al futuro*” [Etorkizunari begira]. Onekak Bilbon aurkezpen bat antolatu zuen. Asmoa zen Bizkaiko 120 udal inplikatzeari eztabaida horretan: zer demonstretze egingo dugu adineko jendearekin? Larrabetzun hitzartuta geneukan, baina konfinamenduak prozesua eten du. Normaltasun berri honetan, formula zaharrak baztertu beharko genituzke, ezta? ●

EL SALVADORKO

SEGUNDO MONTES KOMUNITATEA

Oasi kolektiboa

Auzoko errotan irina egitetik datorren emakumea.

IKER DE LA HOZ GARMENDIA

Etorkizun beltza iragarriko lioke askok Erdialdeko Amerikako herrialde txikienari. Azken ehun urtean apenas ezagutu dute bakerik El Salvadorren, armak hartu eta azala tatuatzea da gazte askoren irtenbide bakarra. Bide horrek, ordea, kartzelara edo lurrera bueltan eramaten du asko, aurpegian zimurrak atera aurretik. Ez da horrela Segundo Montes komunitatean, ARGIAk bertatik bertara ezagutzeko aukera izan duenez.

 MARIA ORTEGA ZUBIATE

2019ak argi izpiren bati sar-tzen utzi dio, azken 29 urteetako baketsuena izan baita, baina *pandillen* indarkeriaren arazoa errealtate gordina da oraindik herrialdean. Hala ere, bada etorkizun horri ihes egiterik lortu dion jendarterik, indarkeriari hezkuntzaz eta antolakuntzaz erantzun dionik, herrialdeko ekialdean, Morazan-go departamenduan. Bada lurralde bat horri muzin egin diona: Segundo Montes komunitatea. Asterix eta Obelix bezala, etsaiak inguratuta daude herritarrek; baina bereari eusten jarraitzen dute.

Tropikoetan tropikoena dirudi Segundo Montes komunitateak. Bi udalerriko lurretan eraikia, 8.000 biztanle inguru bizi dira bere mendi magaletan. Adobezko etxeen eta kafe sailen artean, antzinakoen bizimodu berdina dute oraingoek ere, eguzkia irten bezain pronto dira kalean, lurra lantzen; eta eguzkia sartu orduko,

eguneko euria bota eta gero, ohean dira berriz, parrandarako gogoia duten gazte batzuk kenduta.

Txikia da El Salvador, eta txikia bere oihartzuna. Irakurle euskaldun askori zaila egingo zaio Atlantikoa-ren beste aldean dauden lurraldeak mapan kokatzea. Ziurrenik atzamar-rak Guatemalara, Nikaraguara edo Hondurasera egingo lioke ihes. Bai-na estatu artean galduta dagoen lurralde horrek badu zerikusia Euskal Herriarekin, duela urte asko zabaldu zen lotura bat Atlantikoaz gaindi.

Pakito Arriaran, Miren Odriozola eta beste izan ziren lehenengo, artean gerra pizturik zegoela. Era-kundeak eta elkarte internazionalis-tak etorri ziren gero, gerrak utzita-ko sarraskitik ateratzen laguntzeko. Horien artean dago Euskal Fondoa, bertan garapeneko proiektuak landu dituen. EHUKo ikasleei bertaratzeko aukera ere eskaini die, proiektuak beste ertz batzuetatik lantzeko as-

moz; hain zuzen, lerrook idatzi dituen kazetariak ere parte hartu zuen programa horretan, eta erreportaje honetako adierazpenak bertan jasotakoak dira. 30 urte baino gehiagoko historiak batzen ditu bi herriak, eta ohikoak dira Euskal Herriaren independentziaren aldeko aldarriak bota eta *Txoriak txori* abesten duten salvadortarrak. Batez ere Segundo Montes komunitatean.

Komunitateak, bere horretan, ez du ezer berezirik; ezta bertakoen bizimoduak ere. Herrialdeko beste edozein komunitate izan liteke. Hala ere, salbuespena da herrialdeko errealitatean. Izan ere, *mararik* edo *pandillarik* gabeko lurralde izendatu dute. Eta gobernuak ez bezala, indarkeriarik erabili gabe heldu dira horretara.

ESKARMENTUZ IKASIAK

Jendez lepo heltzen dira autobusak Segundo Montes komunitatera. Departamenduko hiriburutik datoz gehienak, merkatuan erosketak egiteak. Metro gutxiro egiten ditu geldialdiak autobusak, norbaitek txistu egiten duenero; eta poltsa mordoa duten emakumeak jaisten dira, autobuseko eta kaleko beroagatik izerdi patsetan.

Ez da denbora luzea pasatu bide bera militarrek egiten zutenetik. Bertakoa ez denak zaila izango luke duela 30 urteko argazkietan komunitatearen zantzurik aurkitzea; ezerk pistarik ematekotan oraindik zenbait etxeren izkinetan dauden bandera gorriak izango lirarteke. Izan ere, 1980 eta 1992 urteen artean komunitatea goitik behera suntsitu zuen gerra zibil odoltsuak.

Morazango departamenduan, urte luzez militarren jazarpenak jasandako landa eremu txiroa izaki, gerrillariak ziren nagusi. Leku subertsibo bilakatu zen armadaren begietara, eta bertakoek gotik ordaindu zuten beren haserrea. Lurraldea hustu egin zen; gerran zuzenean parte hartzen ez zuten horiek Honduraserara egin zuten ihes, bake bila.

Beren sorterritik 30 kilometro eskasera jarri zituzten dendak, Honduraseko lurretan. Eraman zituzten gauza apur-rekin ekin zioten bederatzi urtez beren etxe bilakatuko zen kanpalekua atontzeari. Ezinbestekoa izan zen bertakoen arteko lankidetzak. Orduantxe hasi zuen bere bidea etorkizuneko Segundo Montes komunitateak.

Derrigorrak eraman zituen Honduraserara, eta beharrianak derrigortu zituen etsai komunari elkarrekin aurre egitera.



Hondurasko errefuxiatu eremua.



Hondamendi naturalak suntsitutako etxeak konpontzeko kolektiboa eratu dute komunitateko zenbait gaztek.

Segundo Montes
komunitatea salbuespena
da El Salvadorren;
mararik gabeko lurralde
izendatu dute. Eta
horretara heltzeko bi
tresna ezinbesteko erabili
ditu; hezkuntza eta
antolakuntza

Lantegi komunitarioak eratu zituzten, familia bakoitzari zegozkion irabaziak errazionamendu txartel bidez banatuz. Asanbladak eratu zituzten, eta kanpalekuetan hartzen ziren erabaki guztiak handik pasatzen ziren.

Dena den, bertakoen apustua ez zen lanaren aldekoa izan soilik. Hezkuntza kanpalekuetako zutabe nagusietakoa zen. Hara heldu zirenean, 1980an, biztanleen % 80 inguru analfabetoa zen; beren jatorrizko herrialdean bizi zuten egoera tamalgarriaren adierazle. Bederatzi urte horietan datu horri buelta ematea lortu zuten, eta 1989rako, El Salvadorrera bueltatu zirenerako, alfabetatuta zeuden komunitateko hamar biztanletik zortzi.



Gizon bat Jocoaitiqueko kaleetan barrena.

IKER DE LA HOZ GARMENDIA

Herri irakasleak izan ziren horren arduradunak. Beren ikasleak baino urte gutxi zaharragoak ziren haur eta nerabeen esku geratu zen gazteenak alfabetatzeko eta hezteko ardura. Ez zen edonolako lana, jakin bazekiten parean zituzten haurretako askok urte gutxira armak hartu eta frontera joan beharko zuela. Eta gainera, ez zen edonolako hezkuntza. Haurren kontzientziazioa zuen helburu, errealtatea ezagutu eta etorkizunagatik borrokan egin zezaten. Esaterako, bokalak erakusteko orduan *Errefuxiatu* hitza erabiltzen zuten, gaztelerazko hitzaren genero maskulinoak bost bokalak baititu (*Refugiado*).

Herri irakasle horiek arduratu ziren hurrengo belaunaldien hezkuntzaz El Salvadorrera bueltatutakoan, artean klaseak emateko zuhaitz gerizpea besterik ez zutenean. Borroka egin behar izan zuten gobernuak irakasle bezala onar zitzan, hezkuntzako diplomak komunitatetik kanpora baliorik ez zutelako. Baina ohi duten modura, komunitate guztiaren parte hartzearen eta nazioarteko lankidetzaren bidez lortu zuten aldarria egikaritzea.

ORDUKO HAZIAK, GAURKO LOREAK

Ordutik hona komunitatearen egoez izan du aldaketarik. Gerra irekirik ez dagoen arren, indarkeriak hurbiletik jarraitzen du komunitateko gazte oro. Alfabetizazioa orokortuta dago, baina ikasketak amaitu eta gero langabezia izaten du zain askok eta askok. Gatazkaren mehatxua dute etengabe inguruan eta badakite zein den hori ekiditeko era.

“Komunitatea bizimodua da, antolakuntza, eraldaketa, batasuna, bizitzan aurrera egiteko era bat”, dio Nory Hernandez Segundo Montes komunitatean bizi den kazetaritza ikasleak. Hondurasen egon zen familietako baten ondorengoa da Hernandez, alfabetatua izanik eta eskutan armarik izan ez badu ere, errealtate horren parte da. Komunitateko biztanle gehienek zuhaitz genealogikoak gerrillaren bandera gorria besarkatu zutenen aurpegiekin beteta daude, horietako askok bizia ere horren alde eman zuten.

Komunitateko beste hainbat gaztek eta ez hain gaztek bezala, Hernandezek ere bertako taldeetan antolatzeaz

ekin zion gaztetatik. Eta hori agerikoa da 8.000 biztanle eskaseko komunitateak bere historian izan dituen antolakunde kopurua ikusita: gazte erakundeak, poesia eta antzerki taldeak, komunikatzaile sareak, hondamendi naturalek eragindako kalteak konpontzeko taldeak eta beste hainbeste taldetan antolatu izan dira bertakoak.

Errealtate hori ez da batere ohikoa herrialdean. “El Salvador herrialde indibidualista da. Indibidualismoaren gurtza egiten da hemen”, dio Roberto Valencia herrialdean finkatutako kazetari euskal herritarra. Herrialdean ia 20 urtez bizi eta gero, argi du zein den *pandillen* fenomenoari aurre egiteko giltza: gizarte-sareak. Segundo Montes bidea, hain zuzen ere.

Segundo Monteskoa ez da komunitate aberatsa, herrialdeko departamentu txiro eta azpigaratuenean kokatuta dago; biztanleriaren erdia baino gehiago pobrezian bizi da. Herrialdeko pobrezia-aren batz bestekoaren gainetik dago. Eta hala ere, egoera kaxkar horri indarkeriaz erantzutea baztertu dute bertakoek.

“Pobreziak indarkeria sortzen due-
la dioen teoria, hemen behintzat, ez da
egia. Nik argi dut herrialde honetako in-
darkeria bazterketa sozialaren ondorioa
dela. Hezkuntza edo osasun sarbiderik
ez izateak indarkeria sortzen du. Eta
bazterketaren arrail horretan egin behar
dugu lan udalok, gure herrietako biz-
tanleria pobreak kalitatezko hezkuntza
izan dezan egin behar dugu lan”, dio Fray
Arriazak. Komunitatea osatzen duten
bi udalerrietako bat da Jocoaitique eta
Arriaza da alkatea.

Horrelaxe egin dute gizarte mugimen-
duetatik zein udaletatik. Gazteek ikasten
jarrai dezaten bekak eman dituzte uda-
lek, hizkuntzetako eta kiroltako ikasta-
roak antolatu gazte erakundeek. Beren
arbasoek bezalaxe, hezkuntza jarri dute
jomugan, gazte heziak behar dituztela
jakitun, komunitatea aurrera ateratzeko.
Era berean, kontzientziazio kanpainak
ere abiatu dituzte; ekologismoa, gene-
ro-indarkeria edota memoria historikoa
landuz; burua okupatuta duten gazte
konprometituek indarkeriarako denbo-
rarik izango ez dutela argudiatuz.

Komunitatean ezer argirik badute
hori da lehengora bueltatu nahi ez du-
tela; gerrillari ohiek ez dituzte beren on-
dorengoak armak eskuetan ikusi nahi,
gazteek ez dute beren gurasoek eta ai-
ton-amonek pasatakoa bizi nahi. Hala
ere, 30 urte pasa ostean, komunitateko
egiturak instituzionalizatu eta gerraren
mehatxua desagertu ahala, gazteen en-
gaiamendua ahuldu da. Horren aurrean
komunitate izaerari eusteko erronka
dutela dio Jocoaitiqueko alkate ohi eta
herri irakasle ohi Walter Clarosek: “He-
rrialde honetako burujabetza-prozesuek
aldaketa garrantzitsuak ekarri dituzte.
Gazteak izan ziren hemengo diktadura
garaitu zutenak, gazteek eraldatu zu-
ten herrialde hau, demokratizatu egin
zuten. Prozesu horietan akats handiak
izan dira, baina ezin dugu dena negati-
boa izan zenik esan. Orain, esku artean
dugun erronka ikuspegi kolektibo hori
bultzatzen jarraitzea da”.

Segundo montesdarrek badakite
nondik datozen, badakite zer testui-
gurutan dauden eta badakite nora joan
nahi duten. Indarkeriak ez du lekurik
hor, aktiboki egin dutelako horren aur-
ka borroka, ez dago beste erarik. Nory
Hernandezek argi du: “1989an komuni-
tatearen egoera eta gaur egungoa alde-
ratuz gero, jendeak borroka egin zuela
ikusten da. Komunitatea eta antolakun-
tza banaezinak dira”. ●



Gizon bat Hondurasko
errefuxiatu eremuan lanean.

CSM MEMORIA HISTÓRICA



FMLNko gerrillariak.



Gerraren ostean gaur egun Segundo
Montes komunitatea osatzen duten
lurrak suntsituta geratu ziren.

MUNDUBAT FUNDATZIOA

IRULEGI GAZTELUA

Baskoien herri gotortu bat Pirinioen magalean

Bi aste lanean eman ondoren, bukatutzat jo dituzte 2020ko indusketa-lanak Irulegiko aztarnategi arkeologikoan. Uztailaren 9an lehen emaitzak prentsaurrekoan aurkeztu dituzte proiektuaren parte diren Aranzadi Zientzia Elkarteko, Arangurengo Udaleko eta Nafarroako Gobernuako ordezkariak. Batez ere Erdi Aroko gaztelua ezagutzen den arren, Nafarroako Protohistorian eta Antzinaroan sakontzeko ere funtsezko aztarnategia izango da, datozen urteetan, Irulegi.

 **JOSU NARBARTE HERNANDEZ**

Kanpaina berezia izan da aurten-goia, COVID-19aren pandemiak eragindako egoera korapilatsuen ondorioz. Proiektuaren zuzendari den Mattin Aiestaranek adierazi duenez, aurten ezin izan dute indusketan parte hartzeko deialdi publikorik zabaldu, eta aurreko urteetako pertsonekin osatu dute, gehienbat, hamar kideko lantaldea. Historia eta arkeologia ikasleak dira nagusi, Euskal Herriko hainbat tokitatik etorriak; baina badira Aranguren ibarra osatzen duten herrietako gazteak ere, auzolanean. Indusketak iraun artean bertaratu den bisitari-kopurua ikusita, argi dago proiektuak interesa piztu duela, inguruko herrietan ez ezik, Nafarroa osoan.

EMAITZA HARRIGARRIAK

Irulegiko ikerketa-proiektua 2007an abiatu zen, Aranguren ibarreko Udalak elkarlan-akordioa sinatu zuenean Aranzadi Zientzia Elkartearekin, Lakidain herritik hurbil, 893 metroko garaieran kokatuta zegoen Erdi Aroko gazteluaren aurriak induskatu eta bisitarientzat egokitzeko xedez. Gotorlekuaren garrantzia ezaguna zen, besteak beste, Nafarroako Erresumako agiri historikoen XII. men-

deaz geroztik aipatzen dutelako; gainera, bere kokapenari esker, bertatik Iruñerri osoa zaintzen ahal da -hiri buruzagia barne-, bai eta Pirinioetara doazen bide nagusiak ere. Garrantzia estrategiko horren lekuko, 2007 eta 2017 arteko lanek agerian utzi zuten lau dorrez inguratutako eraikin errektangularra, hegoaldera begira duela donjon edo dorre nagusia. Lan haiek material arkeologiko ugari azaleratu zuten, eta gaur egun buru-belarri dabilta lanean, emaitza horiek argitaratu ahal izateko.

Aiestaranek 2016an hartu zuen proiektuaren zuzendaritza, bertatik abiatuta doktorego-tesia osatzeko asmoz. Handik bi urtera beste dimentsio bat hartu zuen, ordea, gazteluaren inguruan egindako miaketa geofisikoak lurrazalaren azpian hainbat eraikin zeudela erakutsi zuenean. Lehen ikerketek uste-kabeko emaitzak eman zituzten: hainbat fasetan garatutako herri protohistorikoa zen Irulegiko gazteluaren azpikoa, baskoien lurraldeko garrantzitsuenetarikoa.

Aztarnategiak 12 hektarea inguruko hedadura hartzen du, eta harresi-sistema konplexu batez inguratuta dago. Arrastorik zaharrenak Brontze Arokoak (K.a. XIV. mendekoak) diren arren, gu-

nea bigarren Burdin Aroan garatu zen batik bat, K.a. VI. mendetik aurrera. Une horretan, giza-okupazioaren zantzuak arras zabaldu ziren, Irulegiko mendialde osoa hartuz.

BASKOIAK ETA ERROMATARRAK, SERTORIOREN GERRA GARAIAN

Azken fase horri dagokio, hain zuzen ere, aurten induskatzen aritu diren eraikina. 60 metro koadro inguruko esparrua da, harrizko zokalo eta adobe-zko hormaz egina. Bertan azaldu diren materialek (zeramikak, kontsumitutako landareen haziak eta abereen hezurak, harrizko errotarriak bezalako lanabesak...) gizarte konplexu bati dagokion bizimodua islatzen dute; espezializazio-zantzuak ez ezik, inportatutako elementuak ere agertu dira, garaiko elkartruke-sareen adierazgarri.

Eraikinaren alde batean, haur baten hilobia topatu dute; arrastoen ezaugarriak kontutan hartuta, ezin da esan jaio berria ala jaio gabekoa zen, baina ikerlariak uste dute etxe barruan hilobiratu izanak nolabaiteko errituitasuna isla lezakeela. Erradiokarbono bidezko datazioak K.a. IV. mendean kokatu du haren heriotza.



Paradoxa dirudien arren, eraikina guztiz suntsitu zutelako kontserbatu da ia bere horretan. Sabaia eta hormak bertan behera erorita ageri dira, eta erre-keta-zantzu argiak dauzkate. Hori K.a. I. mendean gertatu zen, 70eko hamarkadan hain zuzen ere. Garai hartan, Iberiar penintsularen iparraldean Sertorioren Gerra gertatzen ari zen: alde batean Sertorio, Hispaniako kontsul errebeldea, zenbait tribu zeltiberiarren babesu lortu zuena; bestean Pompeio, senatuak Erromatik bidalia ordena berrezartzera. Garaiok iturriek aipatzen dute Pompeiok negu bat pasa zuela baskoien artean, eta haren kanpalekuak hiri bati iturburua ere eman ziola: Pompaelo, geroko Iruñea.

Haatik, ez dago oso argi baskoiek zein bandoren alde egin zuten; baliteke, hurrengo urteetan, Irulegiko herriaren suntsiketak pista gehiago ematea gatazka horrek gurean izan zuen eraginaren inguruan. Argi dagoena da gertaera honen ondoren gunea guztiz abandonatuta gelditu zela, handik kilometro gutxira, Argaren hegian, garatzen hasia zen hiri berriaren mesedetan.

Nolanahi ere, Irulegiko aztarnategiak berebiziko garrantzia dauka, Sertorioren gerratik harago, Nafarroako Protohistoria eta Antzinaroa markatu zuten zenbait gertaeraren gakoak ulertzeko orduan. Aiestaranek nabarmendu duenez, Burdin Aroan ez dira arraroak molde honetako herri gotortuak Ebro haranean, eta Nafarroako Erriberan ere badaude zenbait adibide: Alto de la Cruz (Cortes), La Custodia (Viana)... Pirinio magaleko ibarrak, aldiz, pobregotzat jo izan dira, orain arte ez baitzen halako aztarnategirik ezagutzen bertan; Iruñerri betean entitate hau duen gunea identifikatu izanak zenbait ideia birplanteatzeko beharra nabarmendu du, oraindik ere ikertzeko asko dagoela erakutsiz. Gauzak horrela, datozen urteetan ere zeresana emango du, zalantzarik gabe, Irulegiko ikerketa-proiektuak, honezkero mugarri garrantzitsua baita gure iragana ezagutzeko bidean. ●



Brontze Arokoa (K.a. XIV. mendea) da aurren induskatzen ari diren eraikina. 60 metro koadro inguruko esparrua da, harrizko zokalo eta adobezko hormaz egina. Bertan azaldu diren materialek (zeramikak, kontsumitutako landareen haziak eta abereen hezurak, harrizko errotarriak bezalako lanabesak...) gizarte konplexu bati dagokion bizimodua islatzen dute.

Portugeses gero eta erakargarriagoa da galiziarrentzat

Mugakide dira Galizia eta Portugal, elkarren ondoan daude, baina ez elkarri begira. Galegoz eta gazteleraz mugitzen dituzte mihiak Galiziako lurretan, baina zer gertatzen da portugesearekin? Galdera horri erantzuteko asmoz *O valor do português en Galicia: competencia plurilingüe, utilidad e actitudes* ikerketa egin du Observatorio da Cultura Galegak.

 MALEN ALDALUR AZPILLAGA

Galiziako gobernu autonomikoak interes bereziz begiratzeko dio azken boladan portugesei, izan ere, hizkuntzen arteko antzekotasuna baliatu eta modu estrategikoan erabili nahi du. Horren adibide da, esaterako, Paz Andrade legea, zeinak erraztu duen portugesa hautazko ikasgai izatea Galiziako hainbat eskolatan. Gogorarazi behar da bestalde, Galiziako ikastetxeetan galizieraz ikasteko eskaintza mugatua dela. 16 urtetik beherako ikasleek %13 joaten dira gehienbat galegoz egiten duten ikastetxeetara. Bostetik hiruk irakaskuntza elebiduna jasotzen du, galizieraz eta gaztelaniaz. Portugesera itzulita, hizkuntzaren egoeraren inguruko ezagutza eta galiziarren hizkuntza erabilerak aztertu dituzte ikerketan, eta ohartu dira, galiziarren hamarretik seik portugesez ulertzeko gaitasuna duela, nahiz eta gutxi diren sakontzera animatzen direnak; gehienek ingelesa ikasteko hautua egiten dute.

Hákan Casares Berg ikerketaren egilea eta Observatorio da Cultura Galegako koordinatzailea da, eta azaldu du taldearen helburua galiziarrek portugesez zein konpetentzia dituzten eta zein hizkuntza lehenesten duten ikustea zela. Horretarako, galdetegi bat egin zuten 2019ko uztaila eta abuztuan: “Ikerketak baieztatu du, zalantzarik gabe, portugesa dela galiziar gehienek konpetentzia oinarritutakoak dituzten hizkuntza atzerriarra”. Casaresek dio hori gertatzen dela hein handi batean portugesa modu “natural eta espontaneoan” ikasten dutelako, hurbiltasun geografikoak eta galegoarekin duen antzekotasunak erraztuta.

Datuei erreparatuta, ikus daiteke galiziarren %82rentzat, ikasteko atzerriko hizkuntzarik errazena dela portugesa, eta gainera, %73,2k uste duela portugesa irakatsi beharko litzatekeela Galizian, “jendea ezagutzeko, harremanak egiteko eta negozioetarako baliagarria delako”. Dena dela, Casaresek nabarmendu du herritarren gehiengoak portugeseko gutxieneko abileziak baditu ere, oso gutxi direla hizkuntza ikastea erabakitzen dutenak: “Hor ingelesa dago lehen postuan eta atzetik jarraitzen dio frantsesak”.

Hizkuntza bakoitza estereotipo eta estatus jakin batzuekin lotzen da Casaresen ustez, ingelesa, esaterako, estatus ekonomiko altuarekin: “Ingelesa jakiteak nolabaiteko estatusa ematen dizu, eta antzeko zerbait gertatzen da frantsesarekin”. Dena den, uste du ingelesak hartu duen toki nabarmena zuzenean hezkuntzarekin lotuta dagoela: “Galizian portugesearen presentzia handitu nahi bada hezkuntzatik lan egin beharko da”.

Hizkuntza bakoitza estereotipo eta estatus jakin batzuekin lotzen da Casaresen ustez, ingelesa, esaterako, estatus ekonomiko altuarekin: “Ingelesa jakiteak nolabaiteko estatusa ematen dizu, eta antzeko zerbait gertatzen da frantsesarekin”. Dena den, uste du ingelesak hartu duen toki nabarmena zuzenean hezkuntzarekin lotuta dagoela: “Galizian portugesearen presentzia handitu nahi bada hezkuntzatik lan egin beharko da”.

HEZKUNTZAREN GARRANTZIA

Ikerketa honen arabera, herritarren %62k uste du Galiziako Gobernuak portugesa ikastea sustatu beharko lukeela eta %66k ondo edo oso ondo hartuko luke Bigarren Hezkuntzan portugesa ikasteko aukera izatea. Hala ere, hori bultzatzeko asmoz sortutako Paz Andrade legea soilik %17k ezagutzen du: “Hori gertatzen da oraindik gutxi direlako aukera hori eskaintzen duten eskolak”. Jendea portugesa irakastearen alde dago eta Casaresek uste du hori dela herritarrek portugesez jakintzak handitu eta egonkortzeko modua: “Hezkuntza formalean indarrak jarrita erraza izango da konpetentzia horiek asko hobetzea, izan ere, gaur egun jendeak baditu oinarritutako ezagutzak”.

“Zentzuzkoa eta estrategikoa” izan daiteke mugakide den herrialdeko hizkuntza ikasteari lehentasuna ematea, baina ez da beti hala izaten, eta Hego Euskal Herria bada horren adibide. Casaresek dio Galiziarren kasuan asko direla portugesa ikastearen alde lanean ari diren kolektiboak: “Gaur egun oraindik eskola gutxitan dago portugesa ikasteko aukera eta portugesa sustatzeko ezinbesteko neurria da indarra eskoletatik egitea”. Galizian bigarren eta hirugarren hizkuntza ikasienak ingelesa eta fran-



Ikerketan parte hartu duten galiziarren %73,2k uste du portugesa irakatsi beharko litzatekeela Galizian, batez ere ikastetxeetan.

Argazkian Vigoko Unibertsitateko ikasleak. Vigok Portugalgo muga autoz orduerdira dauka.

XORNALDELVIGO.GAL

tsesa izatea eskolaren eragina dela dio, "ez da berezko kontua".

GAZTEENEK INTERES GEHIEN

Historikoki ez dute bereziki harreman ona izan galiziarrek portugesearekin: "Aurreiritzi asko zeuden portugesearen inguruan, uste zen ez zuela ezertarako balio". Ikerketaren arabera asko aldatu da uste hori, batez ere biztanleria gazteenarengan. Dena den, herritarren herenarentzat, portugesak ez du bizitzan aurrera egiten laguntzen, ez zaie baliagarria iruditzen umetan ikastea: "Datuen arabera %16 portugesa irakaslearen aurka dago".

Gazteek dute interes handiena mugakide duten hizkuntzan; beraien etorkizunerako baliagarria dela uste dute: "Portugesez zenbat eta konpetentzia gehiago izan, orduan eta handiagoak

dira jendearen errenta ekonomikoak, hau da, konturatu gara portugesez ondo hitz egiten duen jendea lanbideen goi mailako eskalan kokatzen dela". Hala gertatzea espero zuten ingelesarekin eta frantsesarekin, baina portugesearen kasuan, jendearen iruditegian aldaketa bat egon dela atzeman dute datu horri esker: "Hortik ondorioztatu dugu, bestelako hizkuntza guztiek bezala, portugesak ere atea irekitzen dituela lan munduan".

Gazteenekin batera, galiziar identitatearekin lotura estuena dutenen artean ikusten da portugesearekiko interes handiena: "Galiziar identitate estua dutenen edo galizieraz hitz egiten dutenen artean portugesearekiko atxikipena altuagoa da". Hori normala izan daitekeela uste du, galizieraz hitz egiteak portugesea gehiago hurbiltzen duelako,

ezinbestean: "Handia da bi hizkuntzen arteko antzekotasuna". Interes handia duen beste kolektibo bat mugako herrikideena da: "Askok lanerako erreminta gisa ikusten dute portugesa, baina beste batzuen kasuan eguneroko bizitzako harremanak egiteko izan daiteke ezinbestekoa".

Oro har, erresistentziak egon badaude ere, ikerketaren arabera galiziarrek portugesa sustatzearen alde daude, eta erabilgarria dela uste dute, bereziki, arlo ekonomikoan aurrera egiteko. Pixkanaka historikoki atxikitako estereotipoetatik askatzen ari da portugesa, eta "ezertarako" balio ez duela iruditzen, lan munduan eta bizitzan oro har aurrera egiteko hizkuntza interesgarri bihurtu da galiziar askorentzat. Orain, borondate politikoaren esku geratuko da bide horretan sakontzea edo ez. ●

BABESLETZA:



Lezoko
Unibertsitateko
Udala

UDAN EUSKARAZ

Blai!

ARGIA 1919 - 2020



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Without You: dirutza eta heriotza

Londres, 1970eko uztaila. Abbey Road eta Trident estudioetan *No Dice* izeneko bigarren diskoko kanta grabatu zituen Badfinger talde galestarrak, tartean *Without You* balada akustikoa. Abestiaren hitzak eta estrofa Pete Ham taldekideak sortu zituen, baina ez zeukan errepikarik. Tom Evans kideak, aldiz, errepika indartsu bat sortua zuen eta bi zatiak batzea erabaki zuten. Gerora Richard Perry ekoizelak zera esango zuen: “Abesti desberdina zen garai hartan, erritmo oso markatua zeukan balada bikain bat. Orduz geroztik artista askok konposatu dituzte antzeko lanak, baina ordura arte ez zuen inork halarik egin”. Lana urte hartako azaroan kaleratu zuten, baina ez diskoa ez abestia ez ziren bereziki nabarmendu.

Harry Nilsson musikari estatubatuarak grabazioa festa batean entzun zuen arte. Nahastuta, abestia The Beatles taldearena zela pentsatu zuen hasieran, baina Badfinger talde ezezagunarena zela jakin zuenean, bertsio bat grabatzea erabaki zuen. 1971ko urrian kaleratu zuen eta sekulako arrakasta lortu zuen. AEBetako zerrendetan lehen postuan egon zen hainbat astez eta singlearen 800.000 kopia saldu ziren soilik Erresuma Batuan. Nilssoni esker Badfingerrek ere ospea eta diskoetxeekin baldintza hobeak lortzeko aukera eskuratu zituen.

*Without You*ren egile eskubideak tarte-ko, eta Stan Polley agentearen eskutik,



DUELA 50 URTE GRABATU ZUEN BADFINGER TALDEAK *WITHOUT YOU* ABESTIAREN JATORRIZKO BERTSIOA. TOM EVANS (EZKERRETIK HASITA LEHENA) ETA PETE HAM (BIGARRENA) DIRA KANTAREN EGILEAK.

1975ean Warner Bros Records etxearekin kontratu hobetua sinatu zuten. Baina Polleyk diskoetxeak aurreratutako dirua hartu zuen eta desagertu egin zen. Lur jota, Pete Ham bere buruaz beste egin zuen apirilaren 24an, 28 urte bete baino hiru egun lehenago –eta hala, gutxiatik, 27koen klubean sartu zen–. Hainbat arrazoik bultzatuko zuten horretara, baina bere agur gutunean garbi utzi zuen agenteak egindakoak pisu handia izan zuela, bere azken hitzak hari eskaini baitzizkion: “P.D. Stan Polley sasikume bat da”.

Abestiaren beste egileak, Tom Evans, bide bera hartu zuen urte batzuk geroago, 1983an. Joey Molland taldeko gitarra kontatu zuenez, telefonoz *Without You*ren egile eskubideei buruzko eztabaida garrantza izan ondoren, bere etxeko lo-

rategiko zuhaitz batean urkatu zuen bere burua Evansek.

Harry Nilsson, berriz, 1994ko urtarri-lean hil zen, bihotzekoak jota, eta handik astebetera, *Without You*ren beste bertsio bat merkaturatu zen, Mariah Carey abeslariarena. AEBetan Nilssonen bertsioak adina arrakasta izan zuen ia, baina Europar nabarmendu zen bereziki. Soilik urte hartan, Careyren singleak 500.000 dolarretik gorako sarrerak eragin zituen egile eskubidetan. Zati bat Ham eta Evansen familiek jaso zuten, baina oraindik luza-roan jarraituko zuten epaitegietan egile eskubideen banaketagatik borrokan.

Mende erdia bete berri duen balada ederrak lasai bizitzeko aukera eman ziezaikeen bi egileei, eta, aldiz, heriotza ekarri zien. ●



Urak soildu zuen Tikal

Tikal hiri maia (egungo Guatemala) duela 2.300 urte inguru sortu zen, IX. mendean lortu zuen loraldia, 70.000 biztanle ingurura iritsita, eta hurrengo mendean abandonatuta utzi zuten. Orain arte jakina zen urak horretan eragina izan zuela, edo, hobe esanda, ur eskasiak, lehorteak eremu haiek gogor astindu baitzituen garai hartan. Baina Cincinnatiko unibertsitateko ikerlari talde batek ondorioztatu due-

nez, kantitateaz gain, uraren kalitateak ere izan zuen zerikusirik. Hiriko hainbat uharkatan merkurio arrastoak topatu dituzte, baita hainbat alga toxikorenak ere.

Urtegi haiek eliteak hornitzeko naiz erritual publikoetarako erabili ohi ziren. Hortaz, ur kaltegarriak agintarien ahu-lezia eta populazioaren zati handi bat batera pozoitzea eragin zuela uste dute adituek. ●

KAZETARITZA EZ DA DELITUA



MABEL MEDINA

Ni ez naiz kolonialista, baina...

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Elkanon harro edukiko huke, Axi. Abenturazaleen zerrendan sartzekotan haiz, hitzaldiz hitzaldi Euskal Herriko txokoak deskubritu eta entzuleen belarriak konkistatzen dituk, euskal itsas-gizon ausarten pare, bertakoak hire azalpenekin liluratuz. Domingo Martinez de Iralaren herrian eman duk azken hitzaldia, Bergaran, uztailaren 3an, europarrek eta, tartean euskaldunek, Ameriketara eta Asian egindako balentriez eta berauek goraipatzeko munduan zehar barreiatuta dauden estatua eta monumentuei buruz.

EHko Emakume Migratuen sareak, Martxan talde feministak eta Angiolillo liburutegiak antolatutakoa ez da euskal konkistatzaileen inguruan emandako lehen hitzaldia. Baina bai gorazarre egiten dieten monumentuen ikuspegitik urteetako kolonialismoa eta dekolonialitatea jorratzen dituen aurrenekoa. Lehenago bospasei herritan eman nahi izan dio Elkanori bira Axier Lopez ARGIAko kazetariak. Martxan baita beste aldetik makinaria osoa, gure arbaso abenturazale eta ausart bezala definituak ohorez oroitu eta munduari lehen aldiz bira eman ziotenen balentriak euskal marka gisa saltzeko, V. mendeurrena aprobetxatuta. Baina zer gertatu zen bidaia hartan eta ondoren egin zituztenetan? Zer da kontatzen digutena, saldu nahian dabilzan irudia eta ezkututzen digutena?

Orain arteko hitzaldiak gehiago izan dira kontatzen diguten historia desmuntatzen laguntzen duten informazioen ingurukoa. Baina kasualitatez tartean tokatu da AEBetako Black Lives Matter mugimenduaren astindua eta batez ere herrialde anglosaxoietan zeuden pertsonaia kolonialisten estatua eta monumentuen eraistea. Ate berri bat ireki du honek Elkanoren eta kolonialisten fantasiako ipuina iraultzeko. Edo behintzat beste ikuspegi batetik begiratzeko. Historiak beti uzten baitu arrastoren bat, garaileek batez ere, eta kasu honetan ere, baditugu garai ilun haren makina bat aztarna oraindik etxean.

Juan Sebastian Elkanoren eta bere lagun irudi zuriketaren atzean ezkututzen dizkigute torturak, hilketak, bortxaketak, esklabotza. Kolonialismoa. Eta ezin dugu gure herriaren historia eta bilakaera ulertu ordukoa kontutan hartu gabe. Egia da, guk ez dugu basakeria horretan parte hartu; baina ez al da gure ardura historia hori ondo kontatzea, memoria justua egitea eta herri bezala gure posizioa zein izan zen eta izan zenagatik zein den aztertu eta erabakiak hartzea? Garai hura pasa zen, baina oraingoan ere badago zer egina.

Zita zehatzik aipatu ez bada ere, irailetik aurrera izango dugu horrelako hitzaldi gehiagoz gozatzeko aukera. ●

ONGI ETORRI KOMUNITATERA!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!



"Proposatutako gaiak interesatzen zaizkit: ekologia, Euskal Herria, bizitzeko beste erak, solidaritatea, migranteen arazoak, denen arazoak baitira..."

Bilboko Kepa

"Geure hedabide propioak ezinbestekoak zaizkigulako".

Donostiako Yolanda

"Euskaldun berria naiz eta euskarazko albisteak irakurtzeak asko laguntzen dit eguneroko bizitzan euskara erabiltzeko".

Gasteizko Cristina

"Euskaraz egiten diren hausnarketa kritikoak eta informatuak bultzatzeko".

Arantzazuko Iñigo

"Kazetaritza independentea bizirik BEHAR dugulako eta nire interesekoak diren gaiak euskaraz jorratzen dituzuelako".

Bilboko Alba

LOKARRI DOTOREA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Garai batzuetan lokarri gisa erabiltzen zen landare asko zen. Nire lagun Markel poztuko da haritzaren (*Quercus robur*) sustraiak garai batean soka gisa baliatzen zirela jakitean... Izan ere, haritzak garrantzi handia duen paisaia batekoa da, aramaioarra, eta basogintzara emana dago, bai hanka eta bai buru. Bada, Rodolfo Bozas-Urrutiak Aranon jasoa du nola haritzaren sustraiak kakolatuta edo bihurrituta sokak egiten ziren, eta sendoak eta iraunekoak zirela eranstean du. “Bihurria” esaten zaio.

Haritza ez, baina artearen (*Quercus ilex*) lurraldean den Ameskoako Artatzan “bidurri” esaten zaio aihenzuriari (*Clematis vitalba*). Landare hori igokari indartsua da, eta liana handiak sortzeko gai da. Zuhaitz handien gainera igotzen da, eta besoaren lodierako aihenak aipatzen dira berari buruzko bibliografian; Pio Font i Quer ezagunak, adibidez. Malgua da, eta fina eta zaila. Bihurritu, kiribildu eta ez da hausten erraza; korapiloa aise egingo duzu berarekin, baita txibista ere. Haurrek pipatzen hasteko erabiltzen dute aihen zuria, gehiagotan ere entzun izan dut hori; korapilo eta adabegi arteko adarrak barrua porotsua du, haizezuloz betea, eta, behin lehortuta, erraz tiratzen zaio garrari eta keari. Sokasaltoan aritzeko soka ere egin izan da, nonbait, bere aihenarekin. Baita saskiak ere. Uztarria eta kama edo burkama edo pertika edo timoia lotzen dituen gurtidea ere bai.



Clematis ubela.

Aihenzuriak badu izen gehiago ere, Aezkoan “aiarte” esaten diote, Lizarre-rriko Abartzuzan “ligartza” eta izen hori bera esaten diote Erronkariko Uztarroz azaoak edo sortak lotzeko erabiltzen den lokailuari. “Ezkabia-belar” ere esaten zaio; tiñari, sarnari eta lepra edo legenarrari esaten zaie “ezkabia” eta, agi danean, horien erasoa arintzeko eta eramangarriagoa egiteko sendabela-

rra izan da; izan ere, bakterioak atzeratzeko gai da. “Burukagai” ere esaten zaio; Telesforo Aranzadik argitaraturiko eta Bernardo Estornes Lasak Izabatik bidalitako landare izenen zerrendan agertzen da, eta haurrek landare horrekin koroak egiteko zuten ohitura-rekin lotzen du izena. Pirinioen beste muturrean ere, Montsenyn, aingeruz mozorrotu nahi zutenean berarekin egiten zituzten koroak, eta ilarrondo-ko edo suge-belar loreekin (*Arum spp.*) apaindu. Zenbaitek “metu” eta “hautin” izenak ere jasoak dituzte, baina aihen soilari, alegia, edozein landareren aihenari esateko zuzenagoak ikusten ditut. Dakienak azal beza. “Ezkeraihen”, “aihenezker” eta abar ere jasoak daude, igokari askoren izen ere badirenak: lupulua (*Humulus lupulus*), ezker beltza (*Convolvulus arvensis*), ezker zuria (*Calystegia sepium*) eta abar.

Aihenzuriaren generoa, *Clematis*, greko zaharreko *klēmatis* hitzetik dator eta landare igokaria esan nahi du; espeziearen izena, *vitalba* latinetik dator, eta “ardo zuriaren kolorekoa” esan nahi du; aihenzuri basaren loreak badu, bai, zuri-laru-lasto kolore hori.

Clematis generoa oso ezaguna da lorezaintzan. Kolore askotako loraldi ikusgarriak ematen dituzten igokari galantak sortu dira. Zinez ederrak. Orain-txe daude lore betean. Hauxe amaitu eta ziztuan noa atarian dudari bisita egitera. ●



BURU BELTZA ELKARTEA

BERTAKO ARDI ARRAZARI ETA MENDI ERABILERARI EUSTEKO LANEAN



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

2010ean jaio zen Buru Beltza elkarteak Ipar Euskal Herrian, ardi arraza horrekin lan egiten zuten ehun artzain inguru batu zirenean. 80ko hamarkadatik hona ardi arraza honek %60 inguruko galera izan zuen Ipar Euskal Herrian: 200.000 bat buru zeuden, eta gaur egun, berriz, 74.000 bat buru baino ez. Abeltzaintzak eta nekazari munduak izan duen bilakaeraren isla da tokiko arraza honen bilakaera, baina ez horrena bakarrik: “Manex Buru Beltza arrazak mendia baliatzen du eta bortxaz beste batzuk baino esne gutxiago ekoizten du”, azaldu du Miren Oillarburu elkarteko langileak. Arrazoi horregatik aldatu dute arrazaz azken urteetan artzain askok.

MENDIA ERABILTZEAREKIN LOTUTAKO ARRAZA

Lau eta sei hilabete artean egiten dute Manex Buru Beltza arrazako ardiek mendian, beste arrazek baino gehiago: “Zinez mendiko arraza da hau, baliagarria da mendian izateko, horretarako ezaugarriak ditu”, dio Oillarburuk. Eskualdeko artzainak ardi arrazak aldatzen joan diren heinean, lan egiteko sistemak eta usadioak ere aldatzen joan dira: artzaintza intentsiboagorantz jo



dute, eta mendiaren erabilera pixkanaka gutxituz joan da.

300 bat etxalde ari dira gaur egun Buru Beltzean bakarrik lanean, eta bes-

te ehun bat horiekin eta Buru Gorriekin. “90-100 artzain inguru daude gaur egun elkarte barruan: batzuk gasna egiten dute eta besteek esnea saltzen dute”. Elkartearen kontseilua osatzen duten hamalau laborariak mendi ibar guztietakoak izaten saiatzen dira, eta AOP Ossau Iraty sor-markarekin harremanean daude: “Tokiko hiru ardi arraza hartzen ditu sor-marka horrek, eta helburutzat du arraza horien mantentzea: ez du ikuspegi produktibistatik soilik egiten lan”.

SENTSIBILIZAZIORAKO EKIMENAK

Oillarbururen lanpostuaz gain, lanaldi erdiko beste bat ere badu elkarteak: artzainen lan poltsa kudeatzen du bigarren horrek, eta langileak behar dituzten artzainak eta artalderik ez duten eta horretan lan egin nahi duten laborariak harremanetan jartzea da haren lana.

Jendartea sentsibilizatzeke, Bortuaren Eguna antolatzen du elkarteak urtero Garaziko Ikastolarekin: ardi eta gasna txapelketak, animazioak eta bestelako ekimenak egoten dira arrakasta handia duen jai egun horretan: “Ardi arraza hau ezagutarazteko eta jendea sentsibilizatzeke aukera ematen digu festak”. Irail bukaeran ere ardiak menditik jaisteko garaian beste festa bat egiten dute. ●



**Zure osasuna
zaintzeko garaia da.
Bertokoa eta ekologikoa
kontsumitzeko garaia da.**

eko
lurra



**Euskadiko Elikagai
Ekologikoak**
Alimentos Ecológicos
de Euskadi



ARGI KARTSUAREN DISTIRA

Jon Savage (Jonathan Malcolm Sage, Londres, 1953) musika kazetari britainiar ospetsuak Joy Division post-punk taldeari buruzko historia biltzen duen liburua argitaratu berri du, *This searing light, the sun and everything else*, bandak *Closer* izenburuko bigarren eta azken lana argitaratu eta 40 urte igaro direnean. 1980. urte hartako maiatzaren 18an, *Closer* plazaratu baino hilabete gutxi batzuk lehenago, taldeko abeslari Ian Curtisek bere buruaz beste egin zuen. Aurretik, 1979an, *Unknown Pleasures* diskoa jaso zuen laukote gazteak. Hala, bi disko baino ez zituen grabatu Gozamenaren Dibisioak –izenak naziek kontzentrazio-esparruetan haien sexu-jolasetarako erabiltzen zituzten barrakoiak aipatzen ditu–, baina sekulako eragina izan zuten ondorengo zale eta musikariengan. Itzal hori gainerako hiru taldekideek eratutako New Order egitasmoak luzatu eta haizatu zuen, jatorrizko abeslaria zendu eta berehala.

 **JULEN AZPITARTE GOIENETXEA**
 **KEVIN CUMMINS**

Hartara, asko idatzi, filmatu eta grabatu da Joy Divisionen inguruan, beren musikak eta hitzek –William S. Burroughs eta J. G. Ballard idazleen irakurle sutsua zen Curtis–, etorkizunera eta taldearen barrera begiratzen baitzuten, inguruan zuten punk eztandari gehiegi erreparatu gabe. Savagen hitzetan, “Joy Division oso handiak dira. Punkean inspiratu ziren, baina haien kabuz egiten zuten musika, soinu propioa, heavy metalaren soinua zuten gitarra grabe eta distorsionatuekin, baina era berean, batzuetan, ukitu psikodelikoa zuten, bai eta melodia oso landuak ere”.

Londresen jaiotako autoreak bertatik bertara bizi izan zituen taldearen sorrera eta garapena, sasoi hartan, 1979an, Manchesterren bizi baitzen. Kazetariak *Melody Maker* musika astekarian idazten zuen, eta hauxe argitaratu zuen *Unknown Pleasures* lanaren inguruan, 1979ko uztailaren 21ean: “[...] Joy Divisionen doinu espazial eta zirkularrak, eta Martin Hannet-en ekoizpen bikain eta somnanbulua Manchesterreko gunea ilun eta leku hutsen isla perfektua dira”.

Aipamen hori Savagek oraintsu plazaratutako liburuan agertzen da –gaztelaniazko bertsioa kaleratu du Reservoir Books argitaletxeak: *Una luz abrasadora, el sol y todo lo demás*; frantsesez ere irakur daiteke Allia editorialean: *Le reste n'était qu'obscurité : L'histoire orale de Joy Division*–, baina egilea kontakizunetik erabat aldendu da, ez baitu bere buruaz hitz egin nahi. Areago, musika-idazketan nagusitzen den eredu biografikotik zeharo urrun-

du da. Horretarako, autore britainiarrak *Please Kill Me: The Uncensored Oral History of Punk* liburuak ezagutarazi zuen ahozko historiaren formula baliatu du; alegia, Joy Divisionen inguruan zeuden hainbat lagun eta lekukoren berbekin jositako testigantza korala osatu du. Grant Gee zinegileak filmatutako *Joy Division* (2007) dokumentalaren gidoia idazteko Savagek burututako elkarrizketetan oinarritzen da liburua.

HIRIAREN OIHARTZUNA

Hala, 35 lagun inguruk –bizirik dauden taldekideak barne– parte hartzen dute liburuan, besteak beste, taldeari elurtutako zubi batean egindako argazki mitikoen egile Kevin Cummins eta *Unknown Pleasures* diskoaren azal ikonikoa diseinatu zuen Peter Saville, betiere, bandaren ikuspegi poliedriko, zintzo eta gertukoa osatzeko.

Hain zuzen, laukotearen gertuko ekosisteman izan ziren hamaika elementuren laguntza halabarrezkoa izan zen taldearen garapenerako, tartean, Savagek 1979an idatzitako iruzkinean bildutako ezinbesteko bi faktore: hiria bera eta Martin Hannet ekoizlea. “Joy Divisionek garaiko Manchesterren aura proiektatzen zuela zirudien maila kolektibo batean. Taldea Manchester zena zen”, dio liburuan Liz Taylor *City Fun* argitalpeneko kazetariak.

Martin Hannet
ekoizleak eragin handia
izan zuen taldearen
soinuan: musikariak
hain formalak izateari
utzi zioten berari esker

Manchester musika klubez beteta zegoen, musika-tradizio handiko hiri industrial zikina zen. Ingalaterrako ipar-mendebaldeko hiria, hala nola, musika beltzaren hiriburua zen: Northern Soul *underground*eko kultura zen, eta dendak soul single ezezagunez josita zeuden; Joy Divisionen manager Rob Gretton, esaterako, Northern Soul disko-jartzaila izan zen. “Ezinezkoa zen Joy Divisionek inguruko elementurik ez hartzea. Hala, Nolan Porterren *Keep on keepin’ on*, soul estiloko kanta bitxi bat, *Transmission* doinua bihurtu zen haien eskuetan”, azaldu du Savagek.

Horren harira, Joy Divisionekin batera, Factory kluba eta diskoetxea ere sortu ziren, zeinak laukotearen ibilbidean etengabe agertzen diren, batez ere Tony Wilson Granada telebistako aurkezle eta Factoryren sustatzaile eta jabeen irudikatuta. Wilson teoria eta praktika situazionistekin haluzinatuta zegoen bazter nahasle berritsua zen.



JON SAVAGE

Pop ikerlaria

Jon Savage pop idazle prestigiotsua da, Greil Marcus estatu-batuarraren mailakoa. Britainia Handiko musika-astekari klasiko garrantzitsuenetan aritu da, eta sasoi berean, punkaren leherketarekin batera, AEBetako hainbat punk argitalpenetan ere idatzi zuen, tartean, *Bomp!* eta *Slash*. Bere obrarik esanguratsuenak *England's Dreaming* (1991) da, punkaren sorreraren Biblia. 2007an, *Teenage: The Creation of Youth Culture* (2007) idatzi zuen, teen kulturaren historiaurrea jorrazten duen lan monumentala, eta *1966: the year the decade exploded* (2015), 1960ko hamarkadako pop ez-tanda aztertzen duen liburua.

Bere lanetan genero-ikuspegia txertatzen du, eta horrek bere esparru eta belaunaldiko beste autore batzuegandik bereizten du. Bere obran *background* historikoa ezinbestekoa da, eta hirien anatomia sekulako garrantzia hartzen du, psikogeografiatik hurbil. Narraziorako duen gaitasuna ere aparta da, pop saiakerak idatzi arren. Gay da. Ondorioz, nahiago ditu AEBetako The Screamers edo The Weirdos taldeak Britainia Handiko punka baino, zeina The Clash taldearekin batera korronte "oso matxo eta bistakoa" bilakatu zen. Disko-bildumak ere zuzentzen ditu, tartean, *Queer Noises 1961-1978: From The Closet To The Charts* (2006). Zine gidoilari ere aritzen da. Brexit-aren aurkari sutua da, eta egun Galesen bizi da.



SOINUAREN AZTI HORDIA

Martin Hannet ekoizleak, bestalde, berebiziko garrantzia izan zuen Joy Divisionen soinuaren eboluzioan, laukotearen bi diskoak ekoitzi baitzituen. 1960ko hamarkadako hippie drogazalea zen, baina eskarmentu handiko teknikaria. Berak moldatu zuen Joy Divisionen espazio handiko soinu hori, eta berak erantsi zion kutsu psikodelikoa bandaren jarioari. Manchesterreko ekoizle ofiziala zen,

Manchester musika
klubez beteta
zegoen eta doinu
beltzen hiriburua
zen Ingalaterran.
Northern Soul
delakoak Joy
Divisionen musikan
izan zuen eragina
aipatzen da liburuan

eta bere esku eta belarri sorginduetatik Buzzcocks edo Magazine taldeen diskoak igaro ziren, besteak beste. Richard Boon Buzzcocks taldearen managerra, *Unknown Pleasures* diskoaren inguruan: "Martinek beste kutsu bat eman zien -berak zuzentzen zituen hariak-, eta taldea

Martinek diseinatutako soinu horretara iritsi zen, asko erlaxatu ziren eta hain formal eta derrigortuak izateari utzi zioten". Taldekideak aurretik, Stoogesen soinu gordin eta ilunarekin obsesionatuta zeuden.

Iluntasunaren harira, liburuak, izenburutik hasita, Joy Divisioni erantsitako eta gaurdaino hedatu den itzal lanbrotsu, depresibo eta beltza suntsitu nahi du, Curtisen suizidioa gorabehera. Jon Wozencroft "lekukoaren" hitzak argigarriak dira, Curtisen eta beste taldekideen zuzeneko lana ikusi ondotik: "Niretzat ustekabe handia izan zen, han [eszenatokian], argi zuri handi batek dirdiratzten zuen, dena ez zen heriotzaren, zigorraren eta suntsipenaren inguruan ardaizten. (...) Bizitza normalak magiko bihurtzeaz ari ziren, betiere bizitzaren alde".

Etengabe txantxetan ari ziren 21 urteko lau gazte sortzaile baino ez ziren Joy Division, haien arteko hierarkiarik gabe. Eta hurbileko elementuekin elkar-eraginez, hala lagun ipurterreekin nola hiri-inguruarekin, denbora zeharkatu duten doinuak idatzi zituzten. "Dena ardaizten da doinutzar horien inguruan. Bai, egundoko historia da: haiekin has-ten den hiri baten berreraikuntzaren historia, suizidio tragiko baten historia, historia moral bat, kulturala, akademikoa, intelektuala eta estetiko-koa, baina funtsean, hemen egoteko arrazoi bakarra idatzi zituzten abes-titzarrak dira, eta kantutitzarrak ez dira inoiz hiltzen". ●

'LEMOIZ GELDITU' MURALA

HERRI MUGIMENDUARENTZAT SORTUTAKOA, HERRITARREN ESKU

Euskal Herrian eraiki nahi zituzten lau zentral nuklearren aurkako borroka babesteko, Jose Luis Zumetak, Karlos Zabala *Arrastalu*-k eta Bixente Ameztoik *Lemoiz gelditu* horma-irudia sortu zuten 1980an. Duela gutxi, Bilboko Arte Ederren Museoari eman diotela argitaratu zuen prentsak eta eztabaida piztu da: norena da herri mugimenduarentzat sortutako artelan honen jabetza?

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Urte bizi-bizia da 1980.a mugimendu antinuklearrarentzat. Euskal Herrian eraiki nahi dituzten zentral nuklearren aurka antolatatu diren herritarrak ekintzaz beteriko hilabeteen ondoren iritsi dira azaroaren 8ko eta 9ko Bilboko Erakustazokako "Lemoiz gelditu" jaialdi erraldoira. Zer da hura: 40.000 lagun baino gehiago pasako dira, denetik entzun eta ikusiko da bi egunez, musikariak, bertsolariak, 50 film proiektzio baino gehiago... Eta mugimenduak antolatutako ekintzen artean, Jose Luis Zumetak, Karlos Zabala *Arrastalu*-k eta Bixente Ameztoik elkar-lanean margotuko duten horma-irudia.

Artisten artean harreman "kuriosoa" sortu zela dio Karmelo Landa historia-lariak, margotu bitartean obrak nolakoa izan behar zuen eztabaidatzen ikusi zituela, "amaituko ote dute?" galdetzen zio-la bere buruari. Eta amaitu, amaitu zuten, Zabala pixka bat lehenago joan bazen ere -eztabaiden eraginez? Beste arrazoren batengatik?-. Kontua da 8x5 metroko tamaina daukan koadroari hiruren sinadura jarri ziotela eta, sortu zen testuinguru kontuan hartuta, egileek mugimendu antinuklearraren esku utzi zutela.

Berrogei urte geroago, prentsaren bidez jakin dute mugimendu hartan buru-belarri ibilitako askok koadroa Bilboko Arte Ederren Museoaren esku utzi dutela Otxandioko Udalak eta Andikona elkarteak. Landak esplikatu du artelanak zer nolako bidaia egin duen Bilboko Erakustazokatik gaur arte: jardunaldi antinuklearrak bukatuta, koadroa osatzen zuten zatiak "herri erakunde baten lonjan" gordeta egon zirela esplikatu du. Birritan ikusi ahal izan zuen publikoak 80az geroztik antolatutako erakuske-



Karlos Zabala (erdian) eta Jose Luis Zumeta (eskuinean), euren lanaren erreplikaren parean, Ean.

tetan, baina gainontzean, lokal hartan egon zen gordeta, baldintza ez bereziki onetan. Margoa degradatzen ari zela ikusita, Jose Luis Zumetaren tailerrera eraman eta zaharberritu zuten. Ondoren, Otxandioko kiroldegian egon da gordeta, herri horretako udalari gordailuan utzi ondoren.

Eta azken asteetan artelana Bilboko Arte Ederren Museoaren esku geratzekoa dela dioten albisteek debatea ireki dute: obra herri mugimenduarentzat sortu bazen, nuklearren aurkako kolektiboek jarri bazituzten hura egiteko

bitartekoak; eta egileek, behin amaituta, mugimendu horri eman bazioten... nork dauka zilegitasuna obra museoari dohaintzan emateko? Beste osagai bat ere kontuan izan behar da gainera: mugimendu horretako partaideak ez dira desagertu, lanean jarraitzen dute. Nuklearren aurkako mugimenduaren memoria jasotzeko eta orduko lana gaur egungo erronka klimatikoaren aurrean ere baliagarria izan dadin, Enaden Begiak fundazioa sortu zuten 2018an Ean -zentral nuklearrak eraikitzeke asmoez Gabriel Arestik idatzitako poema batetik hartua da izena-.

Bizkaiko kostaldeko herrian Zumeta, Zabala eta Ameztoiren koadroaren kalitate handiko erreplika ere egina dute, bizirik zeuden margolan originalaren egileak bertan izan ziren fundazioa aurkeztu zenean eta Landak azaldu duenez, Zumetak esan zuen originalak Ean egon behar lukeela. "Murala jabego publiko-k da. Sorreratik egon da herri mugimenduari lotuta eta kudeaketa ere hari dagokio. Baita sorreratik izan duen dimentsio sozial eta politikoa ezagutaraztea ere".

Gaiak sare sozialetan zeresana eman du eta joan den astean museoako ordezkariekin bildu ziren Enaden Begiak fundazioko kideak, zenbaki hau ixten ari garenean jakin dugunez. Hiru ordu baino gehiago iraun zuen bileraren ostean, Bilboko Arte Ederren Museoak onartu du obraren jabetza herri mugimendurena dela, herri-eragileek adierazi behar dutela nolako erabilera eman; baita margolana sortu zen testuinguru sozio-politikoa nabarmendu ahal izatea ere. Ondo bidean, aste honetan sinatuko da hori jasotzen duen akordioa. ●



LIBURUA

Bizitza, nola erabili



ANA ABARSKETA / UKH

HIZLANDIA IÑIGO ARANBARRI

SUSA, 2006

ARITZ GALARRAGA

Itzatuta daukat oraindik: “Une hone-tan errazago idatz dezaket nobela bat poema bat baino”. 2011n eman zuen Iñigo Aranbarrik sententzia, eta emaitzek itzuli diote arrazoia, ordutik hona narraziogintzara lerratu baita argiki, lirika momentuz bazter utzita. Poeta gisa hasi, nobela-ipuingile azkenaldian, beste genero bateko liburu bat izango diot nik maiteen, behintzat maizen irakurri diodan lana: *Hizlandia*, 2004-2006 urteetan *Berria*-n idatzitako artikuluen antologia. “Egunkariaren eguneroko martxa jarraituko zuen norbait nahi zuten, irakurle publiko eta kritikoa”.


Kazetaritzaren herrenak seinalatzea zuen, beraz, zeregin, idatziarenak, irati-telebistenak. Kanpokoak eta barrukoak, barrukoenak. Ofizioaren gainekoak

denak. Batzuetan irudi lezake txikikeriak seinalatzen direla, beste batzuetan gehiegikeriak esaten, baina ezin ezinbestekoak iruditzen zaizkit liburu honetara bildutako artikulua kasik guztiak, profano eta profesionalentzat ofizioari buruzko *master class* bat. Hitzaurrian esaten da: “Kazetaritza arduratsuaren bindikapena izan da borrokaldi bakoitza”.

Baina, azkeneko, hori baino askoz gehiago ez ote den: “Prentsaz ez ezik munduaz eta mundutarrez dudak iritziak” ematen du Aranbarrik. Kazetaritzatik puskaz harago doazen iritziak, tarteka birrintzaileak –“Hirugarren Mundukoak maite ditugu gure olatuei kolorea emateko”–, beti jakingarriak –“Moussaouik gehiago laguntzen du herri hau ulertzen Mattin Partarrieu-ren koadro kitsch guz-

tiek baino”–. Eta guztien atzean dago idazle bat, nabari da karamelu zaiola ari-keta: “Idazle bati egunkari batek eskain diezaiokeen lanik onena”. Azken-azkeneko, harako Perec haren *La vie, mode d'emploi* etortzen zaizu gogora, eskuliburu baita *Hizlandia*, behin eta berriz kontsultatzekoa, bizitza nola erabili behar den argitzeko ezinbestekoa.

Liburu honekin konfirmatu ditut hiru gauza. Baga, prentsako zutabe, artikulua, kronikak, berriz liburuan biltzeak badiela zentzu, interesik. Biga, Susako, zutabe ez izan arren, saiakera atalaren balioa –hemen iruzkindu ditugu Jon Alonso, Garbiñe Ubedarenak–. Eta higa, noski, Aranbarriren ekarri handia, zeina ez den berria. Hiru batean; halako eskaintzarik. ●



MUSIKA

Altsasukoak ipar



ARGAZKIAN 25TH COMING FIRE TALDEKO KIDEAK. DISKOAN SEÑOR NO TALDEAK ERE HARTU DU PARTE.

IKER BARANDIARAN

Bada Euskal Herrian musikari belaunaldi bat 80ko hamarkadan RRVaz erabat aspertu zena. Nahiz eta kalea bizi, poliziaren jazarpena azalean jasan eta jarrera pertsonalean inplikatu, musika politikatik kanpo bizitzea aukeratu zuten. Errespetatzen zuten musika aldarrikapenekin ezkontzea eta ziurrenik bat zetozen haien aldarrikapenekin, baina ez zen haien hautua. Musika dibertimendua da haientzat.

Horregatik, Señor No taldeak Altsasuko gazteen aldeko ekimen bat sortu zuela kontatu zidatenean sorpresa (atsegina) hartu nuen. 25th Coming Fire taldekoekin EP-a erdibana grabatu zuten, bina kanta. Disko salmentan eta egitekoak ziren kontzertuetan batutako

guztia Altsasuko gazteentzat zen, baina ditzosozko COVID-19a heldu zen.

Hala ere, diskoa salgai dago –zuzenean aurkeztu ezinean– eta sarreraren idatzitakoaren harira bitxia da halako ekimenean Galiziako El Beasto, AEBetako American Leather, Madrilen kokatutako Munster eta Folc, Euskal Herriko Artza Recordsekin batera inplikaturik ikustea. Bakoitzaren haututik harago, argi dago –askok ukatu arren– guztia dela politika, eta taberna bateko eztabaida bero batengatik gazte batzuk milatik gora egun espetxean izatea intenzionalitate politikoa duen bidegabekeria itzela dela.

Donostiako Señor No taldea ezaguna da rockzaleen artean. La Perreren errautsetatik sortua, bizi-bizi jarrai-



GAZTEAK ETXEAN NAHI DITUGU ASKOREN ARTEAN

FOLC, MUNSTER, ARTZA, EL BEASTO
ETA AMERICAN LEATHER RECORDS

tzen du agertoki gainean. *Meando en la niebla tempo* erdiko pieza rockeroa da, erritmoekin eta giroekin jolasten duena. *La droga*, aldiz, taldearen hastapenei men eginda The Stooges taldetik sendo edaten duen pieza urgentea.

Donostialdean kokatutako 25th Coming Fire ez da hain ezaguna. Patxada handiarekin ingurune horretan eskola zaharreko hardcore-punkari dotoreziaz eusten dio taldeak. *Terrorist* pieza zuzen-zuzenean doa lepora bi ahotsekin –taldeko abeslari Amaia eta Poison Ideako Jerry A– zapalgailua erabilita. *Liars*-ek, aldiz, melodia eta amorrua batten ditu koordinada antzekoetan.

Diskoa eskuratzeko idatzi funfun321@hotmail.es helbide elektronikora. ●



Mihise zurian murgildu

 XALBA RAMIREZ  AMAIA OCA

Kronik@ diskoa (Balio Dute, 2020) behar bezala aurkeztu du Usurbilgo hirukoak. *Streaming*-ik ez, hezur eta haragizko, eta watt eta dezibelez betetako kontzertu puska. Sarrera gutxiak agortuta, Donostian areto batek antolatutako lehen kontzertuan. Nola ez, beti arriskatzeko prest dagoen Dokan.

Ibilbide luzea dute Beñat Urteagak, Antton Aranburuk eta Mikel Olasagastik elkarrekin. Izeberg eta Hotzikara taldeetan elkarrekin aritutakoak dira eta azken honen hondarretatik sortu da Mihise. Kanta instrumentalak zirenak, ia bost urtez landu ostean, Berako Atalan grabatu dituzte.

Diskoa etenik gabekoa da hamar piezetan, instrumentalak eta ahotsak tartekatuz. Intentsitate joko bikaina proposatzen dute, bateria, baxu, gitarra eta sintetizagailuekin kolore eta ñabardura ugaritako pintzeladak eskainiz.

Esango nuke kontzerturako ez dela akaso bidaiarik aproposena. Diskoan igoera eta jaitsieren klima ederra dena, moztu egiten delako zuzenean kanta eta kanta artean. Zu zeu aldatuz zoazelako energiarekin. Elektrizitatea mingain puntan duzunean gehiago nahi izaten duzu.

Edonola ere, bidaia zoragarria proposatzen dute. Bizitzari buruzkoa –bestela izan al daiteke?–. Kolpe bat jaso eta gora eta gero jaitsi eta mindu eta sendatu eta lokatza gero eta ondo zaudenean kolpe bat jaso eta buelta hasierara. Kronika kroniko baten moduan ikus dezakegu gogoeta.

Unerik gogoangarrienetako bat, zalantzarik gabe, Urteagaren aitaren ahots audio batekin egiten duten *Zer gara ba?* kanta da. Aita hiltzear zela eskatu zion Urteagak esaldia grabatzea, eta hunkituta kontatu zuen esaldi triste

MIHISE TALDEA

EKAINAK 26

DONOSTIAKO DOKAN

eta sakona zena, tonu positiboan grabatu zuela. Horrelako material emozionalarekin jolasten ari den talde bati errespetu osoa. Are gehiago jolasaren emaitza bikainera gerturatzen denean.

Bikain aritu da hirukotea, diskotik entzuten arituko bazina bezala kasik. Fin-fin gitarretan, sendo baxuan eta arriskatuz baterian. Zaleak alde zituzten, hori bai. Hitza hartu zuten bakoi-tzean moztuz, adarra jotzen eta barre algaraka. Bazegoen, bai, zuzenekorako gogorik!

Rocka ez da izango hamarkada hone-tan berrikuntza gehien ekarri digun estiloa, baina asko esan dezake oraindik. Mihise zuri bat bezala har ezazu taldea, eta utzi buruari bere testuretan murgiltzen. Gure antzera bukatuko duzu, Dokak jarritako mahaietatik ezin mugitu, nor bere aulkian zutik txaloka eta beste bat eskatuz. ●



ELUR-PIKORRA ----- EDO		KIGALIKO HERRITAR ----- HEGO EKIALDE		ARRA	 DANI BLANCO	HAUR HIZKERAN, ----- MINA KARKABA		MANTSO, OTZAN ----- EUSKAL HERRIKO HERRIALDEA		AGINTZAILE, JAUNTXXO ----- GOZOKI	
ARAU ----- LISTU							IZPI, PUSKA ----- LOKATZ, BASA				
		INTERJE- ----- KZIOA				OSPAKIZUN, ----- FESTA SASITZA		LUZETARA ----- INAUTERI			
TELEBISTA EMANALDI ----- HANDITUZ JOAN								TRIBU ----- MANTSOA, XUMEA			
				PERTSO- ----- NALAREN IZENA					MOLIBDENOA ----- PERTSO- ----- NALAREN ABIZENA		
TRESNA	SAGAR HONDAKIN ----- ALE, GARAU					AITONA ----- ITSASKOR, LIKATSU					BUKAERA
								NEKEZA, ----- GAITZA			
IDI HITZ- ----- ELKARKETAN			LAZTANA, ----- KUTTUNA						RONA ----- UNNILPEN- ----- TIOAREN SINBOLOA		
BELDURRA, ----- IZUA					SEINALEA ----- DAUKA					ANPEREA ----- HOC, LATINEZKO ----- LOKUZIOA	
OREA EGITEA ----- TRIPA-HANDI						EZKILA ----- 500 ERROMATAR ----- ZENBAKIZ					
								INAUSTEKO ----- LANABESA			

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO
ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3
KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

9	2			6				
	1	8	4			5		
					2			9
8			1					
7		9	2		3	8		4
					7			5
1			8					
		3			1	7	5	
				3			9	6

ZE HARRETARA ETA GOITIK BEHERA,
HITZ BERA.

1. Ia-ia.
2. Iritzi, uste.
3. Usaimenak.
4. Landare mota.
5. Erretereriako dantza taldea.

BAZPENAK	
5. KUKAI	6
4. IRAKA	8
3. SUMAK	5
2. ABURU	7
1. KASIK	2
5XS:	1
	7
	9
	3
	8
	6
	5
	2
	3
	7
	4
	1
	6
	8
	5
	2
	3
	7
	4
	9
	3
	8
	6
	5
	2
	3
	7
	4
	9
	3
	8
	6
	5
	2
	3
	7
	4
	9
	3
	8
	6
	5
	2
	3
	7
	4
	9
	3
	8
	6
	5
	2
	3
	7
	4
	9
	3
	8
	6
	5
	2
	3
	7
	4
	9
	3
	8
	6
	5
	2
	3
	7
	4
	9
	3
	8
	6
	5
	2
	3
	7
	4
	9
	3
	8
	6
	5
	2
	3
	7
	4
	9
	3
	8
	6
	5
	2
	3
	7
	4
	9
	3
	8
	6
	5
	2
	3
	7
	4
	9
	3
	8
	6
	5
	2
	3
	7
	4
	9
	3
	8
	6
	5
	2
	3
	7
	4
	9
	3
	8
	6
	5
	2
	3
	7
	4
	9
	3
	8
	6
	5
	2
	3
	7
	4
	9
	3
	8
	6
	5
	2
	3
	7
	4
	9
	3
	8
	6
	5
	2
	3
	7
	4
	9
	3
	8
	6
	5
	2
	3
	7
	4
	9
	3
	8
	6
	5
	2
	3
	7
	4
	9
	3
	8
	6
	5
	2
	3
	7
	4
	9
	3
	8
	6
	5
	2
	3
	7
	4
	9
	3
	8
	6
	5
	2
	3
	7

V	A	D	U	P		I	D	N	U	V	P	I	R	I	T
I	V	P	N	V	K	A	I	D	I	O	R	V	A	O	
V			V	U	N	I	E	K		A	R	V	A	K	I
M			R	I			T	E	A	M	V	I	T	I	
I	V		A	I	Z				I	L	V	A	R	V	A
	E		T	I	T	A	I	V	S	A	T	P	V		
O	M			V	O	H	N	I	A	I	Z	V	A	H	
N			L	V	K	I	O	A	I	S	E	T	E	L	
V			R	Z	Z	U	L		J		H	V	A	T	
A			R								E	G	E	L	
			Z	I	Z	A	P								
			A	K	I		L	U	B	A		A	H	I	N
T			M		P						Z	K		M	

Iñigo Otxoa

IRUÑEKO HERRI HAUR
ESKOLAREN BULTZATZAILEA



LEHENGO BORROKARI LEKUKOA

"Iruñekoa naiz, lehenengo Udal Ikastole-
tan ibilitakoa, eta oroimen horretatik aile-
gatu naiz hona. Orain ez dut seme-alaba-
rik haur eskolarako adinean, baina badut
4 urteko ume bat, azken hiru urteak haur
eskola bateko euskarazko lerroan eman
dituena. Hori eduki eta gozatu ahal izan
dugu. Gaur egun, ume askok txiki-txiki-
tatik dute euskara, askok euskaraz egiten
dute etxean eta hori transmititzen ari da,
eta ez dugu galera hori sentitu nahi. Ho-
rrek mugitzen nau ni".

"Nahikoa da ume bakar baten eskaera, hari euskarazko plaza emateko"

Sistema publikoak euskarazko plazarik gabe utzitako
familiei zerbitzua emateko, ikasturte berriarekin
batera jarriko da martxan Iruñeko herri haur eskola,
Berriozargo lokal batean. Erakundeei egindako
eskaerek ez dute erantzunik jaso, eta ondorioz, aukera
hori lehenetsi dute HE Gurasoak plataformakoek.
Hiltzeko jaio nahi dute ordea, helburua sistema
publikora lehenbailehen bueltatzea baita. Iruñeko
Udalak hiriko haur eskoletako euskarazko plazetan
egindako murrizketa dago auziaren abiapuntuan.

 ANDER PEREZ  JOSU SANTESTEBAN

Zein murrizketaz ari gara?

Euskarazko plazetan, %36tik %12ra
pasako da eskaintza, baina pixka-
naka joango da aplikatzen. Aurten,
lehenengo sektorekoekin, txikiene-
kin, hasten direnekin, abiatu dute
murrizketa. Plana gauzatzen bada
%12an geldituko litzateke eskaintza.

Zenbat haur utziko lituzke horrek kanpoan?

Zehazki ez dakit, baina adibidez, au-
ten, bularreko haurrentzat 20 pla-
za bakarrik eskaini dituzte Iruñea
osoan, beste urte batzuetan 50
behintzat bazirenean.

Zein da murrizketa horretarako arrazoiketa?

Navarra Sumak berak, egia esan, ai-
tortu du eskaintza oso eskasa dela,
eta ez dela eskarira egokitzen. Ho-
rretan bat datoz haiek ere. Esaten
dutena da epaia [2016an udalak es-
kaintzan egindako aldaketak atze-
ra botatzen dituen] aplikatu behar
izan dutela, eta horregatik gelditu
dela horrela kontua. Baina epaiak ez
du eskatzen aurreko egoerara buel-
tatzea. Egin zezaketen moldaketa

bat, eta ez dute egin.

Zer esaten du epai horrek?

2016ko aldaketa ez zela ongi buru-
tu. Orduan salaketa jarri zuten gura-
soei arrazoia ematen die, baina ez du
udala derrigortzen halako buelta bat
ematera. Interpretazio kontuak dira,
haiek baietz diote, eta guk ezetz.

Hau, dena dela, ez da eskaria-eskaintza auzi huts bat. Harago doala diozue.

Guk beti hartzen diogu aurre ezta-
baida horri, komunikabidetan beti
inposatzen delako parametro horien
araberako neurketa. Guk esaten du-
guna da euskara eskubide gisa uler-
tu behar dela, eta nahikoa dela ume
bakar baten eskaera hari euskarazko
plaza emateko.

Agortuta dago bide politikoa?

Guk ikasturte honetarako udalarekin
geneukan bidea da agortutzat ema-
ten duguna. Zeozer egiteko eskatu
genion: lokalen bat uztea, hezitzaileak
bere kargu hartzea, diru lagun-
tzaren bat, zeozer. Eta ezetz esan
ziguten. Aldi berean, Nafarroako Go-



"EZ DA BAKARRIK HAUR ESKOLA SORTZEA, BAIZIK ETA PRESIOA EGITEN JARRAITZEA, GERO SISTEMA PUBLIKORA BUELSTATZEKO".

bernuarengana ere jo genuen; gure balantzan biak daude, udala eta gobernua. Nafarroako Gobernuak bost haur eskola publiko ditu Iruñean, eta bost horietatik bi erdi bakarrik dira euskarazkoak: bi zentrotan dago euskarazko lerroa, baina ez da murgiltze eredurik.

Beraz, aurrera eginen duzue zuen ekimenarekin. Herri haur eskola sortzera zoazte.

Azkeneko asteetan interesa duten familiekin aritu gara, bilerak izan ditugu, lokalak bisitatu ditugu eta hirigintza arauekin gora eta behera aritu gara. Prozesu horretan 70 familiarekin aritu gara, eta inkesta bat luzatu genien, aukeratutako hainbat lokaletatik umeak zeinetara eramango lituzketen jakiteko. Emaizta horrekin badugu lagin bat, lokal bat hautatzeko. [Elkarrizketa hau egin berritan iragarri zuten herri haur eskolarako hautatutako kokalekua, Berriozarren, eta aurrematrikula epea ere ireki zuten]. Guk jendea animatzen dugu sistema publikora joan dadin, baina kanpoan gelditzen direnendako da herri haur eskola. Hori bai, gure kode etikoa onartzea eskatu diegu familia guztiei, ez delako bakarrik haur eskola sortzea,

baizik eta presioa egiten jarraitzea, gero sistema publikora bueltatzeko.

Asmo horrek apurtzen du publiko-pribatu dikotomia.

Guk berehala kentzen dugu dikotomia hori gainetik. Sistema publikotik bota gaituzte. Guk animatzen dugu jende guztia sistema publikoan aurrematrikula egitera, 12. udal haur eskola simulatu nahi dugu, edo Nafarroako Gobernuaren seigarren haur eskola; bai baremazioan, bai ildo pedagogikoan, bai tarifetan, bai plan nutrizionalean, denean. Beraz, ez zaigu egoki iruditzen guri "pribatu" esatea. Iraungitze data daukagu, eta presioa egiten jarraituko dugu Gobernuak eta Udalak haur eskola gehiago ireki ditzaten. Joan eta etorriko gauza bat da gurea.

Kezkatzen zaitu betikotzeko arriskuak?

Bai, eztabaida hori izan dugu, bada arrisku eta kezka bat. Gure ekintzek esango dute. Guregana datozen familia guztiei argi eta garbi uzten diegu hau ezin dela izan euskaltzaleen elkartasunez dirua jaso eta eroso egoteko toki bat. Mugitu beharko gara gauzak aldatzeko. Iruñeko haur eskolen organis-

moan bilera bat izango da udazkenean: haur eskola berri bat dago auzo berri batean, denek onartzen dute euskarazko eskaintza eskasa dela, eta organismo horretan oposizioak du gehiengoa. Beraz, tira, badira baldintza batzuk baikor izateko. Hori bai, haiek jo dute kolpea, eta inkesta soziolinguistikoa erabilia saiatzen ari dira euskarazko eskaintzari langa jartzen, %22aren inguruan. Indartsu aritu beharko gara, gorago igotzeko. Argi dugu ez garela eskaintza-eskaera parametrotan sartuko, baina eskubi-deak aldarrikatuko ditugu, eta behetik gora joan.

Honek denak ikastolen sorrerako garaira garamatza. Bada halako *deja vu* sentsazio bat.

Gurasoen artean bagaude batzuk aspal-diko Herri Ikastolan ibilitakoak, gure gurasoek mugitu zuten hori guztia. Orain, denbora pila pasata, antzeko baldintzetan gaude, beraz bai, denontzako da halako *deja vu* bat. Baina begira haiek zer lortu zuten: Herri Ikastola sortu eta gerora etorri ziren Udal Ikastolak. Hor garaipen txiki bat izan zen, agian sekula ospatu ez zena, eta horretaz gogoratu beharko genuke. ●



EAJk bateria berria jarri dio Iñigo Urkulluri, hurrengo legealdian gutxiagotan kargatu behar izateko

Jeltzaleek azaldu dutenez, hauteskunde gauerako beste hobekuntza batzuk ere eginak zizkioten Alonsotegiko prototipoari, adibidez, kantatzeko aukera eman dion aplikazio berria. ●

Elkarrekin Podemosen boto-emaile guztiak Bilboko Gabiren Txokoan elkartu dira pote bat hartzen

Miren Gorrotxategik esan duenez, taberna betetzeko gai direla ikusi dute, pertsonen artean metro eta erdiko distantzia mantenduz, hori bai. ●



EH Bilduk Ladis Galartza eta Raymond Poulidor fitxatu nahi ditu hurrengo hauteskundeetarako

Arnaldo Otegi esplikatu duenez, biek beti galtzen zuten Retegi eta Merckxen kontra, baina emaitza historikoak lortu zituzten bere garaian, orain EH Bilduk bezala. ●

OASIKO
Kronikak

▶ —————

**UMORE
DESKONFINATUA**
Entzun podcasta
asteaz behin



Sasoi trumoitsu hauetan
inor ez dadila
ARGIArik gabe geratu

ALBOAN IZANGO GAITUZU



ARGIA txikitik eragiten
Komunitateak
komunitatea babesten du

ARGIA.EUS/EGINARGIAKOA

ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

☎ 943 37 11 50

20170 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com